



**"Hiztunek ez diote
haien ama hizkuntza
hitz egiteari nahita
uzten"**

Paula Laita Pallares / 2-4

**Arruazuko Udala
UEMAko kide
izanen da
martxoaren 25etik
aurrera** / 9

**Irurtzundarrek
udalaren 35.000 euro
zertara bideratu
erabakiko dute
hurrengo egunetan** / 8

**Altsasu herriak
Nafarroako Atletismo
Federazioaren urrezko
intsignia jasoko du
ostegunean** / 16-17

**Aratz Sanzolek
Espainiako Bloke
Eskalada Kopan parte
hartuko du Nafarroako
selekzioarekin** / 19

**Sakanako Haize
Berriak bandak
emakume
musikariak
omenduko ditu** / 23

"Identitatea galtzen baduzu, nolabait iparra galtzen duzu"

PAULA LAITA PALLARES T ILHQOT'IN HIZKUNTZAREN BIZIBERRITZE PLANEKO KIDEA
Kanadan bertan lehenik, eta Irurtzundik ondoren, aipatu plana berritzen, proiektuak lantzen laguntzen ari da aholkularia

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Soziolinguistika Klusterraren Bulego teknikoko ikerlaria da gaur egun Irurtzunen bizi den bilbotarra. Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzan doktorea, Itzulpengintzan eta Interpretazioan lizentziatua eta Itzulpengintzan eta Kulturen arteko Komunikazioan masterra du. Kanadako hizkuntza indigenen biziberritzean lanean aritu da eta ari da. Han bertan aritu da lanean, eta esku hartze proiektuen kudeaketa eskuetan izan du. Zazpi urteko lanaren ondoren, Euskal Herriko Unibertsitatean tesia aurkeztu zuen 2021ean: *Hizkuntza indigenaren biziberritzea Columbian Britainiarrean: Nenqayni Ch'ih* (Tsilhqot'in) hizkuntzarako estrategietan. Tsilhqot'in komunitateko egoera soziolinguistikoaren ikerketa jasotzen du tesiak, besteak beste, orain arte egindako hizkuntza biziberritzeko proiektuak, etorkizunean erabil daitezkeen estrategiak eta herritarren bizi-penak eta ekarpenak. Zeren inguruko tesia egin zenuen?

Kanadako mendebaldean dagoen Vancouverreko hizkuntza indigena bati buruzkoa eta haien hizkuntza biziberritzeko prozesuari buruzkoa da tesia. Vancouver hiritik iparraldera autoz sei edo zazpi ordura dagoen komunitate indigena batean egon naiz azken 9-10 urteetan. Oraindik, Euskal Herriatik, aholkulari lanak egiten ditut haiendako.

Nola bukatu zenuen Kanadan? Eta jatorrizko herri batekin hizkuntza biziberritze proiektu batean lanean? 2012an joan nintzen. Hasieran, Vancouverren egon nintzen lanean. Urtebetez lan egiteko baimena lortu nuen, eta asmoa zen urtebete edo pare bat urte han ematea. Azkenean, gauza bat dela, bestea dela, han geratu nintzen. Jatorrizko herrien eta hizkuntza indigenen egoerari buruz ikasten hasi nintzen. Hemen, egia esan, ez dugu asko entzuten Kanadako hizkuntza indigenei buruz, eta interesa piztu zitzaidan. **Badakigu Amerikako Estatu Batuetan (AEB) hainbat herri indigena daudela. Kanadan, zein da egoera?** Hizkuntza dibertsitate handia dago Kanadan: 12 hizkuntza

familia daude, guztira 70 bat hizkuntza indigena gehi dialektoak. Dibertsitatea oso handia da, eta beraz, zailtasun handiak daude hango egoera kudeatzeko eta hizkuntza biziberritzeko prozesuak aurrera eramateko, oso zailak, eta oso konplexuak baitira.

Hizkuntza errealtateak, pentsatzen dut, oso anitzak izanen direla.

Oso. Probintziaren arabera. Probintzia bakoitzak bere hizkuntza politika du, edo, beno, behintzat ahaleginak egiten dituzte. Baina indigenen hizkuntzak ez dira ofizialak. Iparraldeko probintzietan Inuit hizkuntzak eskubide gehiago ditu, eta onartzen da hango hizkuntza dela. Baina, esaterako, ni egon nintzen Columbia Britainiarrean, eta han ez daukate hizkuntza eskubiderik. Bakarrik onartzen da hango hizkuntzak direla. Bueno, hemen ere, lurraldearen arabera, oso desberdinak dira hizkuntza eskubideak.

Beraz, hizkuntzok komunean duten ezaugarrietako bat da ez dutela lege aitortzarik?

Bai. Hizkuntza horiek desagertzeko arriskuan egotearen arrazoi nagusiak kolonizazioa eta asimilatzekeo estrategiak dira. Han azken 100 urteetan erresidentzia eskolak egon dira. Kanadako Gobernuaren estrategia zen komunitate indigenara joan, umeak hartu, eskola katoliko horietara eraman eta asimilatzekeo prozesuan sartzea.

Behar bezala zibilizatu, behar bezalako hizkuntza ikas zezaten eta basati oso onak izan zitezen. Horixe. Eta erlijioa, sinesmenak. Haien sinesmenak eta mundu ikuskera eraldatu, eta erlijio katolikoa komunitateetan sartu nahi zuten.

Akulturazio prozesu horretan punta bateko ume bat beste puntako erresidentzia eskoletara eramaten zuten eta alderantziz? Edo ondoko ikastetxeetara eramaten zituzten ikasleak?

Normalean, haien lurraldeetan geratzen ziren, ni egon naizen eremuan, behintzat. Baina, askotan, haien komunitateak 100 edo 200 kilometrora zeuden. Han indarkeria eta bortxa pairatu zituzten. Hizkuntza erabiltzea debekatuta zuten eta erabiliz gero, zigorrak jasotzen zituzten. Tratu txarrak eta sexu abusuak ere izaten ziren; eta heriotza tasa oso altua zen. Umeek urtean zehar ez zeukaten baimenik familia ikusteko. Ume txikiak ziren, eta kultura eta hizkuntza propioarekiko atxikimendua eta konexioa edo lotura galtzen zuten. Horri, esperientzia horiek eragindako

"HIZKUNTZOK DESAGERTZEKO ARRISKUAN DAUDE KOLONIZAZIO ETA ASIMILAZIOAGATIK"

"INDAR HANDIA JARTZEN DUTE LURRA, KULTURA ETA HIZKUNTZA ALDARRIKATZEAN"

trauma gehitu behar zaio. Gaur egun, trauma hori oso nabarmena da komunitateetan.

Nola islatzen da trauma hori?

Hizkuntzarekiko atxikimenduan, esaterako, eta identitatearekin lotutako erronketan. Egoera nahiko gordina da: desegitura-tutako familiak, alkoholismoa, drogak... Herri indigenen gizar-tearen errealtatea oso gogorra da, eta hor hizkuntzak badu bere garrantzia. Zeren, azkenean, identitatea galtzen baduzu, nolabait iparra galtzen duzu.

Kanadan, azkenaldian, hildako haurren hobiak agertu dira erresidentzia ikastetxe horien inguruan. Horrek kontzientzia arazorik sortu dio Kanadako herriari? Nola eragin die komunitateei? Prozesu hori ni justu iritsi nintzenean hasi zen, orain dela hamar-hamabi urte. Kanadako Gobernuak ahalegina egiten du erreparazioan eta aitortzan. Modu desberdinetan bizi da komunitateetan. Baina, gizar-tean aldaketa bat egon da behintzat, orain-txe gertatzen ari da. Horrek badu eragin bat hizkuntza biziberritzeko prozesuan eta aldarrikatzeko prozesu horretan. Komunitateetan kontzientzia handia dago. Identitatea hor daukate; kasu honetan Tsilhqot'in sentitzen dira. Indar handia jartzen dute lurra, kultura eta hizkuntza aldarrikatzeko prozesuan. Hizkuntza da haiek aldarrikatzen ari diren beste gauza bat. Azkenean, ez da bakarrik hizkuntza, haiek ulertzen dute dena batera; lurra, hizkuntza eta kulturarekiko lotura.

AEBn erreserbetan sartu zituzten. Kanadan zein da errealtatea?

Nahiko antzekoa. Erreserbak daude, AEBtan bezala. Orain komunitateak esaten diete, baina Kanadako Gobernuak sortutako erreserbak dira. Kanadan komunitate bakoitzak eskumen desberdinak ditu. Nik lan egiten dudan jatorrizko herrian, Tsilhqot'in, sei komunitate daude. Badute haien gobernu eta haien sistema politikoa ere. Haien asmoa da Kanadako Gobernuarekin parez pareko harremana izatea:



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



herri batetik beste herri batera. Haiek ez dute onartzen Kanadako errealitate politikoa. Herri bat bestearekin komunikatzea aldarrikatzen dute.

Nola bukatu zenuen Tšilhqot'in jendearekin?

Nik, momentu horretan, ez neukan asmorik tesi bat egin edo doktorego programan sartzeko, zeren masterra bukatuta neukan eta nahiko nekatuta nengoan. Baina jendea ezagutzen hasi nintzen eta, azkenean, lagun baten bitartez, komunitateko jendea ezagutu nuen eta haiek bisitatzera joaten nintzen. Lehenengo urtean haien eskolan egon nintzen lanean, boluntario gisa, ekitaldietan, eta hizkuntza ikasten; neure burua han kokatzen. Haiendako oso garrantzitsua da, nik uste leku guztietan. "Zergatik zaude hemen? Zein da zure interesa?" Nik ere prozesu hori bizi izan dut: nire birraitona izan zen euskaraz egiten azkena, eta, ondoren, nire familian ni naiz lehenengo euskalduna. Nik A ereduari ikasi nuen, gero unibertsitatean, ondoren euskaltegi batean egon nintzen. Ni euskara biziberritzeko prozesuaren produktu bat naiz. Han, komunitatean egonda, eskolan, ikusten nuen: ni naiz ume hori. Haiek Tšilhqot'inak dira. Etxean ingelesez egiten dute. Eskolan bakarrik ordubeteko saio bat dute egunero hizkuntza ikasteko. Kantak eta dantzak ere egiten dituzte. Haien ustez, beraien identitatearen zati bat falta da, eta hori hizkuntza da. Ni txikitan horrela sentitzen nintzen: bai, euskal dantzak, bai, ez dakit zer, baina, azkenean, gaztelaniaz egiten nuen nire inguruan eta familian. Ni nahiko identifikatuta sentitu nintzen komunitatean egonda. Nire testuingurua azaldu nuen, eta, orduan, lanean hasi nintzen. Hizkuntza Koordinatzaile. Kanadako eta probintziako gobernuei dirulaguntzak eskatu nizkien. Hizkuntza plan estrategiko bat garatu genuen, Hizkuntza Batzarra sortu genuen. Lehentasunak identifikatu genituen, eta hizkuntza biziberritzeko proiektuak egiten hasi ginen.

Nola sartu zen unibertsitatea?

Hizkuntza biziberritzeko proiektu horien artean diagnosia egin beharra ikusi genuen: zer baliabide ditugu, zenbat hiztun, zer material, zeintzuk dira komunitatek iritziak, nola berreskuratu



Paulak Irurtzundik T ilhqot'in herriarekin elkarlanean segitzen du.

nahi dute hizkuntza... Ikerketa bat egitea erabilgarria izanen zela esan zuten. Azaldu nien unibertsitate masterra nuela, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego programan hizkuntza biziberritzeko adar bat zuenez, kolaborazio ikerketa proiektua egin genuen nire doktorego programarekin. Horretan oinarrituta, tesia idatzi nuen. Baina, berez, haien errealitatea arlo akademikoan islatzeko komunitatearen beste proiektu bat izan zen. Handik ateratako ko-

munitatearen ekarpen guztiak hizkuntza planean sartu genituen, planean komunitatearen ikuspegi guztiak izateko. Hasierakoa Hizkuntza Batzarrak egin zuen bakarrik. Hortik hizkuntza biziberritzeko proiektuak egiten hasi ziren.

Zer errealitate jaso zenuen?

Tšilhqot'inera desagertzeko arriskuan dago, Kanadako hizkuntza indigena guztiak bezala. Baina probintzia horretako zerrendan lehenengo postuan dago. Haiek oso egoera larrian daude. Baina beste hizkuntza indigenen aldean,

hiztun gehiago dituzte, hiztunak nahiko gazteak dira, 45 urte ingurukoak. Etxeko transmisioa eten egin da, baina aitona-amonek eta guraso batzuek oraindik Tšilhqot'inera hitz egiten dute. Hizkuntza biziberritzeko eskalan kokatzen du herri hori, eta hizkuntza biziberritzeko aukera dagoela adierazten du. 4.300 bat Tšilhqot'in dira eta 700 bat hiztun daude, %20 gutxi gorabehera.

Eskolan A ereduak moduko bat dutela esan duzu.

Bai, irakasgai guztiak ingelesez dituzte, eta Tšilhqot'in hizkuntza ikasteko irakasgai bat baino ez. Haien asmoa da orain murgiltze ereduaz ezartzea. Gure hizkuntza planean, esaterako, haur eskola sortu genuen, murgiltze programa bat. Orain curriculumak sortzen ari gara, poliki-poliki Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzeko eta urtetik urtera promozio berriak sortzeko eta aurrera egiteko.

Zuk ere hizkuntza ikasi zenuen. Euskaltegi modukoak dituzte?

Garai hartan, ez. Baina orain hizkuntza eskolak sortu ditugu, edo, behintzat, hizkuntza ikasteko aukera eskaintzen dugu. Pandemia garaian hasi ginen Interneteko Zoom komunikazio plataformaren bitartez, baina komunitatean ere hizkuntza eskolak ematen dira. Ni iritsi nintzenean ez zegoen aukerarik. Tšilhqot'in hiztunak ziren nire irakasleak. Eta komunitatea. Azkenean, bizitza Tšilhqot'inera egiten dute. Batez ere adinekoek. Haiekin komunikatzeko niretako oso garrantzitsua zen, baita haien kultura ulertzeko ere. Ni kanpotarra nintzen, oso argi neukan: ez zitzaidan gustatzen haiek hizkuntzaz aldatzea nirekin hitz egiteko. Hemen bezala: kanpotar bat agertzen bada eta hizkuntza aldatzen badugu. Sentimendu hori nuen, eta haiek asko eskertzen zuten, eta beti zeuden prest irakasteko.

Hizkuntza estandarizatuta dute?

Gai konplexua da. Hizkuntza plana garatzeko bileretan estandarizazioaren gaia atera zen, eta hainbat ikuspegi daude. Batzuek ikusten dute eskolan behintzat eredu estandarizatu bat edo erabili behar dela, baina beste batzuek haien identitate propioari uko egitearen modukoa da. Esaten dute "nire familian horrela hitz egiten da". Desadostasun bat dago, eta oraindik ez

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

"HAIEN ASMOA DA KANADAKO GOBERNUAREKIN PAREZ PAREKO HARREMANA IZATEA"

"HAIEN ERREALITEA ISLATZEKO BERAIEK BESTE PROIEKTU BAT IZAN ZEN DOKTOREGOA"

dute argitu. Joan den mendeko 70eko hamarkadan gramatika eta alfabeto bat garatu ziren. Hor nolabaiteko adostasuna dute, baina ahoskeran eta hitz egiteko orduan ez dago adostasunik.

Hizkuntza biziberritzeko prozesuan ikusi da hedabideek ere badutela garrantzia. Tšilhqot'inerazko komunikabiderik bada? Hedabideek ikusgarritasuna ematen diote?

Bai. Gero eta gehiago ulertzen dute hizkuntza biziberritzeko prozesuan ikusgarritasun hori garrantzitsua dela. Beraiek Tšilhqot'in Irratia dute. Hor ere hizkuntza oso presente dago. Kanadako telebistan eta irratan kulturek eta hizkuntzek presentzia dute, baina beste modu batean. Tšilhqot'inera hutsezko saioak haien irratan bakarrik entzun daitezke.

Beraz, oraindik ere, Irurtzundik Tšilhqot'in jendearekin harremanean eta lanean?

Aholkulari gisa jarraitzen dut. Hizkuntza plana eguneratzen ari gara orain. Proiektu batzuk egiten jarraitzen dugu, esaterako: Zoom bidezko hizkuntza eskolak; nik curriculuma garatzen jarraitzen dut; Hizkuntza Batzarrearekin bilerak egiten ditugu... Eta, bai, lotura hori mantentzea gustatzen zait. Adibidez, Kanadara joango naiz apirilean. Ekitaldi batzuk eginen ditugu komunitatean, unibertsitatean hitzaldi batzuk... Mantentzen dut harremana, bai.

Bi herriak lotzen dituzu, Paula. Parekotasunik badugu?



Tšilhqot'in jendearekin zaldiz paseo bat ematen. UTZITAKOA

Bai. Hizkuntzak biziberritzeko prozesuetan, edo hizkuntza bat galtzar dagoenean, beti antzekotasunak daudela uste dut. Hitzunek ez diote haien ama hizkuntza hitz egiteari nahita uzten. Prozesu kolonizatzailea eta asimilatzeko estrategiak hor daude. Hizkuntza menderatzaile bat. Egoera oso antzekoa da. Historian zehar egoera desberdinak egon dira, baina ondorioak oso antzekoak dira: aipatu dugun identitatearen galea, lurrarekiko harremana eta

haien lurra aldarrikatzeko prozesua... Munduan barna antzekotasunak ikusten dira, leku guztietan. **Tšilhqot'inengandik zer ikasi dezakegu?**

Askok, askok daukagu ikasteko. Elkarrengandik asko ikasten dugu prozesu guztietan. Honetan: estrategiak, haiendako hizkuntza zergatik den garrantzitsua, identitatea, lurra, gu nor garen... Hori guztia guk ere badugu. Bestetik, hizkuntza ez da kode huts bat. Hizkuntza ez da komunikatzeko

tresna bat bakarrik. Bada, baina hizkuntzak errealitatea ikusteko beturreko berezi batzuk ematen dizkigu. Hemen ere badugu hori.

Aldi berean, hizkuntza biziberritzeko prozesuak konplexuak direla ikas dezakegu. Azkenean, gu eta gure hizkuntza biografia zein den jakitea. Nondik gatoz? Zer gertatu zen nire familian? Zergatik galdu zen hizkuntza nire familian? Zergatik ikasi nahi nuen hizkuntza? Zeintzuk ziren nire arrazoiak... Oso desberdinak izan dira ni bezalako bilbotar batenak, azpeitiar batenak edo kanpotik etorritako batenak. Beste arrazoi batzuk eduki ditzakegu. Hori guztia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar da hizkuntza biziberritzeko prozesu hori arrakastatsua izateko. Horretaz aparte, aitortza eta erreparazioari garrantzia eman

"HIZKUNTZA PLANA EGUNERATZEN ARI GARA. PROIEKTU BATZUK EGITEN JARRAITZEN DUGU"

"HIZTUNEK EZ DIOTE HAIEN AMA HIZKUNTZA HITZ EGITEARI NAHITA UZTEN"

behar zaie. Oso garrantzitsua da onartzea zer gertatu den, zer egin nahi dugun. Baina aitortza abiapuntu oso garrantzitsua da.

Kontuan izan behar dugu, bestalde, hizkuntza biziberritzeko prozesuak ere kolektiboak direla, guztion ardura baita hizkuntza biziberritzea. Ardura desberdinak daude maila guztietan: herri mailan, komunitatekoan, familian, norbanakoen ardura... Maila guztietan lan egin behar dugu prozesu hori arrakastatsua izateko. Bestetik, instituzioen babesa. Herria motorra da, han ere hori ikusten da. Baina gizarte honetan instituzioaren rola, eskoletan zer gertatzen den, oso garrantzitsua da prozesu hori laguntzeko. Aldi berean, hizkuntzaren transmisioa dago: hizkuntza biziberritzeko prozesuetan oso garrantzitsua da hiztunak lortzea, baina etxeetan transmititu behar da eta kalean erabili behar da. Hizkuntza ikastetik, hizkuntza horretan bizitzera pasa behar da, benetan hizkuntza biziberritzeko eta ez desagertzeko.

Herri bakoitzak badu eskubidea hizkuntza eta kultura aldarrikatzeko. Haien modura. Azkenean, mundu ikuskerak oso desberdinak dira munduan zehar. Hori ere islatu behar da hizkuntza prozesu horretan arrakastatsua izateko. Bukatzeko, aliantzak eta sareak ere oso garrantzitsuak dira; bakoitzak berea, baina badugu elkarrengandik zer ikasia.



MUSIKAZ BLAI

Irantzu PASTOR ORDOKI

Argazkilaria / LESAKA

Ezetz asmatu zeintzuk diren bere kantu kuttunak Piztu irratia!

Martxoak 17, ostirala, 10:30etatik aurrera

Beleixe irratan

beleixe 107.3 FM



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN LOPEZ DE GOIKOETXEA

Soinuaren hesia

Ziur aski denok entzun dugu esamolde hau: *Mucho ruido y pocas nueces*. Shakespeareren lan baten izenburua ere bada. Euskaraz honela esaten dugu: "Oinaztura handi eta euri gutxi". Zarata izan zen joan den otsailean armadaren F 18 hegazkin batek egin zuena eta Sakanako eta Arabako hainbat herritan entzun zena. Arrazoa: soinuaren hesia hautsi zuen. Bel Pozueta eta Jon Iñarritu EH Bilduko diputatuak azalpenak eskatu zituzten, eta duela egun batzuk erantzun zuten esanez hegazkinak "beharrezko abiadura" hartu behar zuela. Nik ez dut hori uste. Hasteko, inori ez zaio gustatzen bere hesia haustea, ezta soinuari ere.

Egia esan, soinua izugarri azkar doa, 1.200 kilometro orduko abiaduran. Baina soinuak beti izan du lehiakide eskurazina, argia. Lehenengo tximista ikusten dugu eta gero trumoiak. Argiaren jainko asko daude, eta trumoiaren jainko zelta bat besterik ez, Taranis. Beti bigarren mailako aktorea izatea ez da atsegina. Gainera, joan den mendeko 50eko hamarkadatik abiadura supersonikoko hegazkinak eraikitzen hasi ziren.

EZ LEGOKE GAIZKI SOINUA BAKEAN UTZI ETA BESTE HESI BATZUK APURTZEA

hegazkinen pilotuari errieta botatzen ari zitzaien soinuaren orroa izan zen.

Tira, ez legoke gaizki soinua bakean utzi eta beste hesi batzuk apurtzea. Matxismoaren hesia edo arrazakeriaren hesia, adibidez. Hesi horietakoren bat apurtzea lortzen dugun egunean zarata handiarekin eta intxaur askorekin ospatuko dugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Potentzia eta egintza

AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ!

Dena aldatzen doa, Heraclitok zioen moduan, edo aldaketa zentzumenen lilura bat besterik ez da, Parmenidesez defendatzen zuen moduan? Filosofiaren eztabaida klasiko honetan Aristotelesek muturra sartu nahi izan zuen edozein aldaketak potentziatik egintzarako urratsa dakarrela baieztatzeko, non potentzia edo ahalmena balizko aukera bat besterik ez den gauza bat beste batean bilakatzeko.

Adibidez, energia berriztagarriak egintzan potentzia edo ahalmena daukate energia hornikuntza sistema alternatibo batean bilakatzeko, deszentralizatua, tokian tokiko kontrolpean eta aldaketa klimatikoan kalte txikiagoak sortuz. Aristotelesi jarraituz, aldaketa prozesu batean geundeke, baina egiazko gertaeren garapenari jarraikiz, egintzari dagokionez, beldur gara Parmenides ez ote zihoan hain oker baieztatzen zuenean besterik gabe zentzumenen lilura baten aurrean gaudela, bestela esanda, marketing estrategia huts baten aurrean gaudela dena aldatzen denaren irudia emateko eta bide batez, aldaketa aukera eragozteko. Gure kasuan, eredu energetikoa.

Zaila da benetan, lilurakeria ez deitzeagatik, sinestea ingurumenaren kolapso globala eragin duten berberak ekarriko digutela energia ereduaren aldaketarik, edota Espainiako Erreinuan egin nahi diren 1.400 haize eta eguzki makrozentralen atzean dauden funtsa putre transnazionalak

eraginkortasuna eta deszentralizazioa lehenesten dituen eredu baten aldeko apustua egiten ari direla, edota zergatik ez, tokian tokiko kontrol publikoa sustatzen dutela energia burujabetasunari bidea irekiz.

Bei bei, beye, Sakana zertan dabil festa honetan? Argi eta garbi adierazteko, haien lotune elektrikoaren euskarri fisiko gisa zerbitzeko, iragateko lurraldea besterik ez, merkealdi prezioaren eta espekulazioaren aldarean

inmolaturik, hori bai, berriztagarrien mantu berde batez apaindurik oraingo honetan.

REE SAK eta Forestaliak proiektaturiko goi tentsioko lineak, sarrerarik eta irteerarik gabeko autopistak dira, Sakanako paisaia altzairuzko eta kablez beteriko kalbarioa bilakatu nahi dutenak.

Proiektu hauen aurka jartzeak egintza eragozteko dakar potentzia bizirik mantendu ahal izateko, gure garapen beharrek bat heldu den alternatiba bat mamitzeko aukera, eta bide batez, gure natur guneak errespetatzeko.



OBJEKTIBOTIK



Urtebete falta da 23. KORRIKArakol



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa Altsasuko Zumalakarregi plazan. ARTXIBOA

Pentsioak murrizteko koefizienteagatik kexa

Pentsiodunen elkarte batek Europako Parlamentura eraman du. 40 urte edo gehiago lan egin duten eta erretiro aurreratua hartu duten pertsonak bidegabe zigortzen dituela salatzen dute. Pentsioaren %100 kobratu ahal izatea eskatzen dute

SAKANA

Jubilatu elkarte batek, Asjubi40k, Espainiako Erreinuaren kontra aurkeztutako kexa tramitatzea onartu du Europako Parlamentuak. Elkarteko kideek ez dituzte bidezko zat jotzen 40 urte edo gehiago lan egin eta kotizatu duten pertsonen erretiro aurreratua hartzeagatik jarritako zigorrak. Izan ere, horren ondorioz, pentsioaren %100 kobratu beharrean gutxiago kobratzen dute. "Espainian gehien kotizatu dutenak diskriminatzen dituzte; hori bidegabea eta legez kanpoko da", adierazi dute elkartekideek. Horregatik eskatzen dugu 40 urte edo gehiago kotizatu dutenei ezartzen zaien murriz-

keta koefizientea aldatzeko neurriak hartzea".

Elkarteko kideek argudiatzen dute, batetik, "neurri hori adinagatik bereizkeria da, beste jubilatu kolektibo batzuekin eta Estatuko klase pasiboekin alderatuta (karrerako funtzionarioak, militarrek, agintari ohiak)". Eta, bestetik, "legeari erreparatu, egoera konparagarrian, zerga eta ekitatearen fun-

BESTE KOLEKTIBO BATZUEKIN ALDERATUTA "NEURRIA ADINAGATIKO BEREIZKERIA DA"

tsezko printzipioa urratzen da, Estatuko klase pasiboen eta Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren arteko diskriminazioa ez baitago objektiboki eta arrazoiz justifikatuta". Eta gogorarazi dute "Europako Konstituzioak diskriminazioa debekatzen duela".

Kexa aurkeztu duten elkarteko kideek garbi dute "lege kontua baino politika gaia" dela. "Agerikoa da presio politikoa dagoela murrizketa koefiziente horiek ezartzeko. Agerikoa da presio politikoa dagoela jendeak urte gehiago lan egin ditzan eta ahal den beranduen jubilatu dadin, Europak ere ideia hori atsegin du eta. Baina hori ezin da egin

bizitza osoan lanean aritu den kolektibo baten kontura".

Kexaren ibilbidea

Elkarteak jakinarazi duenez, 700.000 bat pertsona daude egoera horretan. 1.900 bat pertsonaren kasuak bildu dituzte kexan. Aurkeztutako agirien artean pertsona bakoitzaren lan eta kotizazio historiak daude. Udan aurkeztu zuten kexa Europako Parlamentuan, eta aztertuko zutela erantzun zuten abenduan. Asjubi40 elkarteko kideak martxoaren 6an elkartu ziren europarlamentariekin.

Kexa aztertuta, Parlamentuak Europako Batzordera bidali dezake eta kexari erantzuna ematen ez badi, elkartek Europako Justizia Auzitegi Gorenera jotzeko aukera izango du. Kexak bi urte inguruko bidea egin dezake Europako erakundeetan. Erakunde horietakoren batek ebazpena ematen ez badu, Europako Arartekoaren esku geldituko litzateke kexa. Interesa duenak Europako kexa horretara batzeko aukera du.

Europako bidez aparte, pentsiodun horiek erretiroaren %100 kobratzeko eskaera Gizarte Segurantzaren eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu dute. Horren guztia berri zehatzago jaso nahi duenak pentsiodunen mugimenduak astelehenetan egiten duen kontzentrazioetara hurbildu daiteke. Han beharrezko azalpen guztiak emanen dizkiote.

INTERESA DUENAK EUROPAKO KEXA HORRETARA BATZECO AUKERA ZABAL-ZABALIK DU



Salmahaian ere ageri da data.

Zehaztu da noiz ospatuko den Nafarroa Oinez

Andra Mari ikastolak antolatuko du aurtengo Nafarroa Oinez. Festaren aurkezpenaren berri Iruñeko prentsaurrekoan egin zutenean, azaroaren 3an, ez zuten ospakizunaren datarik eman. Antolatzaileek datarekin zalantzak zituzten. Normalean, Nafarroako ikastolen festa Gipuzkoako pasa eta bi astera izaten da, lastaileko hirugarren igandean. Aurtengo hori lastailaren 15a da, baina egutegiari erreparatu, zalantzak sortu zizkien Andra Mari ikastolakoei hiru egun lehenagoko jai egunak.

Izan ere, jai eguna izanik, gerta daiteke jende askok zubia egin eta kanpora joatea, bai festara etor daitezkeenak, bai hartan lan egin behar dutenak. Horregatik, Andra Mari ikastolak erabaki du Nafarroa Oinez lastailaren 8ra aurreratzea.

Aurtengo ospakizunean lortutako diruarekin ikastolak DBHko eraikinean hobekuntzak egin nahi ditu, 1965eko izanik, irisgarritasun eta isolamendu arazoak dituelako.

Gasbide egitasmoaren kontrako manifestazioa deitu dute

Deitzaileen iritziz, "orain da garaia herritarren indarrak batu eta proiektu inposatzaile hau geldiarazteko"

ARAKIL / IRURTZUN

Etxeberri eta Lekunberri gasbide batekin lotu nahi dute, Aralar mendian barna. Nedgia enpresak sustatu du proiektua. Gasbidearen mendian barnako trazatu horren kontra dauden herritarrak

Aralar Zain Dezagun plataforman elkartu dira eta "aldarrikapen ozen" entzunazteko beste pauso bat emanen du: martxoaren 25ean, larunbatarekin, 18:00etan manifestazioa deitu dute Lekunberri.

Aralar Zain Dezagun-eko kideek azaldu dutenez, "Nafarroako Gobernuari, Nasuvinsari, alternatiben inguruko hainbat txosten eskatzerakoan, agerian gelditu zen ez zutela beste alternatibarik lantzeko asmorik". Ziurtatu dutenez, Aralarren barnako gasbide proiektua "erabat suntsitzalea" da. Eta gogorarazi dute Larraungo eta Arakilgo udalek "teknikoki bideragarria den alternatiba bat proposatu" dutela. Hura Plazaolako bide berdean barna joan litzateke.



Manifestazioa aurkezteko agerraldi jendetsua egin zuten Irurtzun.

ELEKTRIKORA PASATZEKO GARAIA DA



Ibilgailua elektriko baten truke aldatzeko eta kargatze-puntu bat instalatzeko garaia da.
Aurreztu eta klima-aldaketa geldiarazten lagunduko duzu.
Abenduaren 31ra arte, gure laguntza izango duzu



IBILGAILU ELEKTRIKOA EROSTEA

- 9.900 eurorainoko zuzeneko laguntza.
- 8.250 eurorainoko kenkari fiskala.



KARGATZE-PUNTUA INSTALATZEA

- % 80rainoko zuzeneko laguntza.
- % 15erainoko kenkari fiskala.

LAGUNTZAK 2023KO ABENDUAREN 31RA ARTE INDARREAN. INFORMA ZAITEZ GAUR



navarragreen.es

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



nafarroagreen.eus

Hamabigarren parte hartze bidezko aurrekontuak martxan

Hura sustatzen duen taldeak lau proposamen egin dizkie irurtzundarrei. 35.000 euroko poltsa du

IRURTZUN

Irurtzungo parte hartze bidezko aurrekontuen herriar taldeak aurtengo prozesua abian jarri du. Irurtzundarrek aukera izanen dute udalaren 35.000 euro zertara bideratu erabakitzeke. Horretarako, taldeak lau proiektu aurkeztu dizkie irurtzundarrei, eta haietako baten alde botoa emateko eskatu dute. Taldekideek nabarmendu dutenez, “botoa ematearekin batera garrantzitsua da, batetik, hurrengo urteetarako proposamenak egitea”. Eta, bestetik, “norberak jakinarazi dezala bere kale edo auzoan zer hutsune edo arazo txiki dauden, udalak aintzat hartu eta, ahal badu, konpondu ditzan”.

Lau proposamenetako baten alde botoa emateko epea hilaren 15etik 26ra dago zabalik. Botoa 16 urtetik gorako irurtzundarrek eman dezakete, betiere beraien burua identifikatuta. Botoa emateko hiru bide daude. Alde batetik, udalaren Irurtzun aplikazioaren bidez. Hura doan deskargatu daiteke Play Store edo App Store bidez. Martxoaren 15etik 21era bitartean, aplikazio horretan botoa emateko atal bat egongo da. Aplikazioa erabiltzen dutenek Irurtzun hobetu atala erabil dezakete proposamenak egiteko.

Beste aldetik, botoa aurrez aurre emateko hiru egun izanen dira, betiere, nortasun agiria aurkeztuta: martxoaren 24an, ostiralarekin, 18:00etatik 20:00etara, martxoaren 25an eta 26an,

larunbatarekin eta igandearekin, 12:00etatik 14:00etara. Botoak jasotzeko kutxa osasun etxeko arkupeetan jarriko da. Botoa eman eta proposamenak aurkezteko azken aukera *preparirurtzun@gmail.com* helbide elektronikora mezua bidaltzea da. Mezuan izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia adierazi behar dira, jasotako mezuak eroldarekin erkatuko baitira. Jasotako botoak zenbatu eta boto gehien duen proposamena udalari aurkeztuko dio taldeak, aurrekontuetan sar dezan.

Denetariko lanak

Irurtzungo Udalak 2011n 20.000 euroko partida eskainiz hasi zuen ibilbidea. 2014az geroztik diru kopurua 35.000 eurokoa da. Joan den urtean 70.000koa izan zen, 2021ekoa eta 2022koa batu baitzituen. Hamabi urte horietan denetariko lanak egitea erabaki dute irurtzundarrek: Erreka eta Bi Haizpetako inguruak aisiarako berreskuratu; espaloiak errespetatu; seinaleak errespetatu; igerilekuetako instalazioak hobetu; Atakondoako aldagelak; karpa; anbulantziatarako sarbidea egokitzea; plazako zorua eta harmailak konpontzea; igerilekuetako berdeguneak eta sarre-rako hurbiltzea konpontzea; igerilekuetako aldagelak konpontzea; Atakondoa patioan jolas-parkea jartzea eta Mendiko ibilbideak berritzea, Ur biltegian begiratokia jartzea eta Plazaolan atsedeneak jartzea.

Hilerri pareko asfaltoa konpontzea

Plazaolatik elizarantz jaisten den Hilerriko Bidea edo Erga kalean zoruren zati bat hainbat lekutan altxatuta dago. Izan ere, inguruko zuhaitzen sustraiek asfaltoa pixkanaka hondatu dute. Narriadura hori nabarmenagoa da Plazaola eta kanposantu parearen arteko zatian. Proiektu horren helburua da egungo galtzada altxatzea eta asfaltatze berria egitea.



Larrazpin hainbat konponketa

16 eta 30 urte arteko gazteei utzitako udal lokalak hobekuntza premia du. Proiektuak leihoak konpontzea eta egungo elektrizitate instalazioa aldatzea aurreikusten du. Gainera, sukaldarako hainbat elementu instalatzea ere aintzat hartzen du, hala nola, suak, ke erauzgailu kanpaia, lan mahaia harraskarekin, ontzi garbigailua, hozkailua eta apalak.




Intxaularre parkean hobekuntzak

Etxeberrirako errepidearen ertzean, industrialdearen eta Larraun ibaiaren parean dago Intxaularre parkea. Parkean 33 intxaurrondo daude, Atakondoako neska-mutilek auzolanean jarriak. Intxaularre izena jarri zitzaion parkeari, hiru ikaslek proposatuta. Parkean mahaia eta aulkiak daude eta iturri bat eta barbakoak jartzea proposatu da.



Jolas parkea estaltzea

Azken urteetan, plazako pilotalekuaren atzean dagoen jolas parke hori handitu egin da aisialdirako altzari berriak jarrita. Jende asko ibiltzen da leku horretan, eta jende askok erabiltzen du. Udako hila batean haurrentzako jolas-eremu hori itzala emango dion eta beste une batzuetan euritik babestuko duen estalkia jartzea proposatzen da.



Txooooo!

JUANLUZENA

SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE

txotx denboraldia zabalik

ODERITZ

948 604 571 | 680 652 183

akuntza gasoil

BEROKUNTZA

NEKAZARITZA

AUTOMOZIOA

gasoleoslakuntza.com

948 576 016- 609 421 680

- Alberto Iriarte -

Bigarrenetan, Arruazu UEMAn sartuko da

Udalak 2014an hartu zuen erabakia baina foru administrazioak ez zion utzi. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide martxoaren 25ean egingen da. Erakundeak 101 udal eta 305.000 biztanleko lurgunea osatzen du

Alfredo Alvaro Igoa ARRUAZU

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) udalerrri euskaldunek euskararen biziberritzeari eta herri honi egiten dioten ekarpena nabarmentzeko ekitaldia egingen dute Azpeitian, martxoaren 25an. Ekitaldi berean beste lau udal kide gisa onartuko dituzte eta horien artean, Arruazu dago. UEMAn aurretik Arbizu eta Etxarri Aranazko udalak daude.

UEMAko lehendakari Iraitz Lazkano Garitaonaindiak azaldu duenez, "euskararen erdia udalerrri euskaldunetan ekoizten dela adierazten dute adituek eta soziolinguistek. Ekoitzi ez ezik,



UEMAN sartuko diren lau udalako ordezkariak, presidentea eta koordinatzailea.

biziberritu ere egiten da euskara udalerrri euskaldunetan, belaunaldiz belaunaldi, modu naturalean. Horrek egundoko eragina dauka euskararen erabileran, udalerrri euskaldunetan ez ezik udalerrri euskaldunetako herritarrek beste herrietara ere zabaltzen dutelako euskara, efektu biderkatzailea sortuz. Beraz, ezinbestekoa da udalerrri euskaldunak zaintzea, babestea eta garatzea, eta hori ere gogoratu dugu".

Lazkanok udalerrri euskaldunen erroka berriak ere zerrendatu zituen: "ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala leuntzea, herritarren kontzientziazioan eragiten jarraitzea, baina askoz neurri sendoagoak ere behar ditugu". Horiei eta bestelako errokei buruz arituko dira Azpeitian. Mankomunitateko lehendakariak zehaztu duenez, "gaur egun UEMAn daude euskararen arnasguneak, baina badakigu UEMAKo kide diren udal guztiak ere ez direla euskararen arnasguneak. Udalerrri euskaldun horiek ere, ordea, giltzarriak dira euskararen etorkizunerako". Presidenteak ziurtatu zuenez,

"udalerrri horiek datozen urteetan izanen duten bilakaera garrantzitsua izango da euskararen biziberritzean; eta guztietan, arnasguneetan zein udalerrri euskaldunetan, izango da beharrezkoa politika ausartak egitea eta euskara nagusituko den eremua indartzea". Nabarmendu zuenez, "UEMAk arnasguneei eustea eta gainerako udalerrri euskaldunak ere arnasgune izan daitezen lan egiteko konpromisoa du". Azkenik, euskaltzaleak Azpeitiko ekitaldira joatera gonbidatu zituen Lazkanok.

UEMAko kide berri izanen diren herri berrietako lau alka-teak, berriz, pozik agertu dira udalek hartutako erabakiekin. Laurek adierazi dutenez, UEMA-rekin lanean hasteko gogotsu daude, izan ere, laurek nabarmendu baitute udalei eredugarri izatea dagokiela. Horretarako bi esparru aipatu dituzte, alde batetik, udal barruan hartu beharreko neurriak areagotzea, eta beste aldetik, udalerrriak euskalduntzeko zerbitzuak UEMArekin landuz ere, horien bidez, batez ere, herritarren kontzientziazioan eragiteko.

Gazteen udalekuko izena ematea

UEMAko herrietako gazteendako udalekuak aurreko garagarriaren 26tik garilaren 4ra izanen dira. Udaleku ibiltaria da eta parte hartzen duten gazteek Orozkotik Dimarako bidea egingen dute. 2005 eta 2008 urteen artean jaiotako gazteei zuzendutako eskaintza da. 120 plaza daude eta izen ematea hilaren 31 arte dago zabalik. Udaleku ibiltari horren bidez UEMAK lortu nahi du udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentibilizatzeko, kontzientziazioa eta eragile aktibo bihurtzea. Gainera, helburu horiekin, UEMAK euskararen arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua abian du.

"Euskarari atxikimendu handia diogu"

GORKA OVEJERO GANBOA ARRUAZUKO ALKATEA

Prentsaurrekoa zela eta, arbasuarrari anfitrioi lana egitea egokitu zitzaion asteartean. **Udalak UEMAn sartzeko pausoa eman du, zergatik?** Aspaldiko asmoa zen. Izatez, 2014an saiatu ginen. Pleno batean onartu genuen eta garai hartako UPNren Nafarroako Gobernuak debekua jarri zigun. Beste udal nafarren bati ere ukatu zioten sarrera. Guk bere horretan utzi genuen. Orain ikusi dugu gaiari berriz heltzeko garaia zela, eta sartu gara. **Zer behar da UEMAn sartzeko?** Euskaldun eta ia euskaldunen portzentajea %70etik gora izatea udalerrian. Hori da sartzeko baldintza bakarra. **Egoera horretan Sakanako udalerrri bat baino gehiago badago.** Arbizu, Ergoiena, Etxarri Aranatz eta Urdiain. Lakuntza, beharbada, ezagutzen.



Arruazun euskarak zer nolako osasuna du? Erdara barra-barra aditzen da, baina euskara ere pila bat aditzen da. Gure gazte denboratik honantz jauzia egon da. Gaur egun, jende gehienak, baten bat kenduta, euskaraz ikasten du. Arruazun euskarak etorkizun oparoa dauka, zeren bertan bizi garenak euskarari atxikimendu handia diogu. **UEMAN sartzeko zer emanen dio Arruazuko udalari eta herriari?**

Nolabaiteko betebeharrak jarriko dizkigu. Hori ere ona da euskarak aurrera egiteko. UEMAn egotea prestigioa, betebeharra eta konpromisoa dakartza. Espero dezagun horrek euskarari indar piloa ematea. **Zer emanen diozue UEMARI?** Arruazuko euskaldunak, Arruazuko euskara, Arruazuko ohiturak. Lurraldetasun aldetik Nafarroatik UEMAn sartzeko udalerrien kopurua txikiagoa da. Horregatik, oso pozik daude oraingoan Doneztebe eta Arruazu sartuko garelako. **101 udal zarete, mankomunitate majo bat?** Bada, bai. Biztanle kopuruan beharbada ez gara kristoren pila izango, baina 101 udalerrri esanahi du Hego Euskal Herriko eremu zabaletan barreiatutako jende eta lurraldea gaudela UEMAn. **Zuena udal berezia da, udal batasuna osatzen duzue**

Irañeta eta Uhartea Arakilgoarekin batera. Arruazu UEMAn sartzeko beste udalei eraginen die? Zorionez, udal langile guztiak, idazkaria, kontu hartzaileak eta administraria euskaldunak dira. Eta euskara ezagutza beti exijitzen da lanpostuen deialdiak egiterakoan. Beraz, hortik arazorik ez dugu. Beti daude halako txosten handi luze batzuk, Nafarroa Gobernura-edo bidali beharrekoak, bada askotan idazkariak-edo erdara hutsean egiten dituenak. Uste dut pixka bat malguak izan behar garela, egunero euskaraz bizi behar garela. Joango gara pitteka-pitteka horrelako pausok egiten. **UEMAN sartzeko nolabait ospatuko duzue herriari?** Ez dut uste. Herri txikitetan, badakizu, gauza hauek... Beharbada Euskararen Egunean, abenduaren 3an, zerbait egingen dugu.



Hiru ostiral baino gehiago egon beharko dute pediatria eskatzen.

Pediatria zerbitzua eskatzen segituko dute

Altsasuko osasun eskualdeari dagozkion plaza eta erdia bete dezatela eskatzeko bilkurek segida izanen dute

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Pediatria zerbitzuko gabeziak konpondu ez direnez, bilkurak deitu dituen guraso taldeak haiekin segitzea erabaki du. Izan ere, bide ofizialetatik kanpo jakin zuten mediku bat hasiko zela lanean pediatrian eta asteen hiritan artatuko zituela haurrak martxoaren 13tik aurrera. Ostiralean jakinarazi zuten, hala, korik ez da izanen, eta, beraz, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko haur eta nerabeak artatuko dituen profesionalik ez dago. Horregatik, eta egoera konpon-tzen ez den bitartean, gurasoek

elkarretaratzeekin segitzea erabaki dute. Hori bai, ordua aldatu dute, hemendik aurrera ostiralean 19:00etan izanen da.

Bestetik, jendeak kexa gisa aurkezteko erreklamazio testua aldatu dute. Hartan zehaztu dute pediatria ez izateak zer ondorio dituen. Esaterako: jaio-berriei 15. eguneko azterketa Iruñean egiten da, baina gai-nontzekoetarako itxaron ze-rrendan gelditzen ari dira; gaixotasun kronikoak dituzten haurrek ez dute tratamenduen jarraipena; ez da detekzio goiz-tiarra egiten ari...

DUELA 25 URTE...



Adinduenari omenaldia

Juan Lazkozek 95 urte zituen eta Lizarragabengoako adinduenaren. Horregatik, lizerrengotarrek omendu egin zuten. Egitarau bete-a prestatu zuten horretarako. Lehenik haren omenezko meza. Ondoren, hamaiketakoa. Hura despedituta, aureskua dantzatu zioten eta lore sorta ederra jaso zuen. Txistulariek pieza gehiago jo zituzten giroa alaitzeko. Eta bukatzeko, Bordatxo elkartean herri bazkaria izan zen. Kontzejuak plaka bat eman zion. Festa giroak segida izan zuen.



Ikasleak eta irakaslea ikasnova gelan. UTZITAKOA

Institutuak Batxilergo Orokorra eskainiko du

Hura aukeratzen duten ikasleek zientziatako eta letretako ikasgaiak izanen dituzte aukeran. Etorkizunean zer ikasi nahi duen oso argi ez duenarendako edo denetarik hartu nahi duenarendako egokia izan daiteke eskaintza

SAKANA

Altsasu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) institutuak orain arte Osasun Zientziak, Ingeniaritza edo zientifikoa, Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak batxilergoak eskaini izan ditu. Batxilergo Orokorrekin bere eskaintza zabalduko du heldu den ikasturtean. Altsasu DBH institutuko zuzendari Iñaki Mundiñano Larrazak azaldu duenez, eskaintza berriak "konbinazio asko ematen ditu. Aukera ematen du ikasgai batzuk Giza eta Gizarte Zientzia batxilergotik hartzeko eta beste batzuk Zientzie-tatik". Gaineratu duenez, "ez dago definituta. Norberak eman behar dio definizioa Batxilergo Orokorriari".

Ikasle profilari erreparatuta, Mundiñanok azaldu du eskaintza berria "izan daiteke zientzien arloan ibili nahi duenarendako, baina ingeniaritzaren bat egin nahi ez dutenarendako. Edo izan daiteke gizarte zientzien inguruan ibili nahi duenarendako, baina

bestelako profil batekin, zientziatako irakasgairen batekin konbinatzean, esaterako, kirolarekin lotutako ikasketak. Anatomia edo biologiarekin konbinatuta, fisioterapia..." Horregatik, zuzendariak dio Batxilergo Orokorra "irekita gelditzen den aukera bat" dela.

Eskaintza

Nafarroan D ereduan Batxilergo Orokorra lau ikastetxek eskaintzen dute. "Sakanan bertan eskaintza guztia eskura izatea izugarria da", nabarmendu du Mundiñanok. Ikastetxearen balio erantsiak nabarmendu ditu: "gertutasuna, ibarrean bertan ikastea, bizi-bizirik dagoen eta egokitzen ari den ikastetxea,

espazioak pedagogiara egokitzen ari den ikastetxea, XXI. mende-ko erronkei aurre egingen dion ikaslea dugu buruan. Helburua da ikasleak prestatzea ezagutze-tan, kompetentzian eta balioetan". Ikastetxeak Arakildik Ziordira arteko ikasleak hartzen ditu: "beraz, Sakanan bertan eta sakanarrendako institutua da. Ibarreko gazteak saretzen ditue-na Sakana egiteko".

Hezkuntza sistema aldatu den moduan, "Batxilergoa asko ari da aldatzen azken urteetan: gero eta biziagoa eta praktikoagoa da, metodologia berriak erabiltzen dira, Ikasnova gelaren bidez komunikazio digitala eta teknologia berriak uztartzen dituen proiektua..." Zuzendariak azpimarratu duenez, "izugarrikoko garrantzia ematen diogu komun-ikazio gaitasunari. Ahozko-tasunaren proiektuan indar handia egiten dugu". Jakinarazi duenez, Europako beste ikastetxe batzue-kin hartu-emanak egiteko proiektuetan sartuta daude.

"EZ DAGO DEFINITUTA. NORBERAK EMAN BEHAR DIO DEFINIZIOA BATXILERGO OROKORRARI"

Turismo jasangarrirako plana ondu dute

Nafarroako Gobernuak sustatu du Turismo Jasangarritasunaren Lurralde Plana. Haren baitan Plazaola, Ultzamaldea eta Sakana daude. Irizpideak markatu ditu. 2023 eta 2026 artean egonen da indarrean

SAKANA

Maitena Ezkutari Artieda Turismo zuzendari nagusia eta Mikel Irujo Ametzaga Ekonomia eta Enpresa Garapeneko kontseilaria Altsasun izan ziren ostira-lean. Bisitaren arrazoia izan zen Plazaola, Ultzamaldea eta Sakanarako ondu den 2023-2026 Jasangarritasun Turistikoko Plana aurkeztea. Haiekin elkartu ziren, besteak beste, Altsasuko, Lekunberriko eta Larraungo udaletako ordezkariak, bai eta Cederna, Plazaola Turismo Partzuergo, Sakanako Garapen Agentzia, Bidelagun Turismo Elkarte, Aralarko santutegi, Mirua enpresa eta Ayestaran hoteleko ordezkariak ere.

Foru administrazioko kideek azaldu zutenenez, aurki indarrean jarriko den plana Next Generation funtsek finantzatzeko dute (bospasei milioiko aurrekontua du planak). Horri esker, hurrengo hiru urteetan helmuga bateratua bulkatuko dute Plazaolak,



Udaletako eta gobernuko ordezkariak lortia kultur gunean bilduta. ARTXIBOA

Ultzamaldeak eta Sakanak. Azaldu zutenenez, "eskaintza bereizia, kalitatezkoa eta lehiakorra izanen du, eta turismo jardueraren egungo joerekin eta lurraldearen eskari eta beharrek bat egiten duena".

Ezkutarik eta Irujok azaldu zutenenez, planaren ardatz nagusiak dira, batetik, helmuga eta haren azpiegiturak klima aldatetara egokitzea, Plazaolako bide berdean uholdeen eragina prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak

hartuz. Bestetik, energia eragin-kortasuna eta irisgarritasuna hobetzea xenda eta bizikleta bideetako zerbitzu guneen sarean (hiru eskualdeetako natur bideen lotura egin eta eskualde sarea sortzea). Eta, azkenik, turismo produktu berriak garatzea eta sustatzea. "Jarduera ardatz horiek guztiak eskualdeetako turismo baliabide nagusiekin garatzeko dira", azaldu zuten gobernuo kideek. Horien artean zerrendatu zituzten Donejakuerako jatorrizko bidea, Altsasuko Dantzalekuko hariztian bide irisgarria, Mendukiloko haitzuloa edo Basaburuko hariztia.

Gobernuko ordezkariak azaldu zutenenez, "planaren helburu nagusia turismo helmuga erresiliente eta jasangarri bat eratzea da, azpiegiturak klima aldaketaren ondorioetara egokituz, bereziki uholdeen arrisku eta eraginen aurrean, eta ekipamenduen eta azpiegituren energia-eraginkortasuna sustatuz". Planak ere lurraldeko espazio eta baliabide naturalen erabilera ere hobetu nahi du, "toki batzuetan sortutako nahi gabeko ondorioak zuzentzeko". Aldi berean, Plazaola, Ultzamaldea eta Sakana "zikloturismoaren eta naturaren helmuga gisa kokatu eta turismo produktu iraunkorren garapena bultzatzea zikloturismoaren, mendi ibilien, kirol tradizionalen, ondarearen, hizkuntzaren (euskara) eta gastronomiaren inguruan". Azkenik, planarekin lor-

tu nahi dute hiru eskualdeek "turismo helmuga irisgarria sustatzea eta hura kudeatzeko eredu berri bat garatzea, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarrituta".

Plazaolako bide berdea konponduta

Gobernuak Plazaola bide berdean euriteek duela hamalau hilabete eragindako kalteak konpondu ditu. Egitekoen artean zeuden: Leitza eta Sarasa arteko 43 km-etan zorua konpontzea, Uitziko tunela konpontzea, Latasan harri lubeta egitea edo Kasarna pasabiderako sarbidea konpontzea. Lanak XEGO 17 da, eta Obras y Canalizaciones JFG enpresek egin zituzten eta otsailean despeditu ziren. Europako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko funtseko Helmugen arteko Kohesio Jarduketa (215.315,14 euro) eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren kalte ordainarekin (135.000 euro) pagatu dira lanak.



Gobernu ausarta
merezi dugu

Prest gaude!

**UXUE
PRESIDENTA**



Sakanako



pun tuak



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

ALTSASU IORTIA KULTUR GUNEA	LAKUNTZA OGIBERRI OKINDEGIA
ARBIZU LONBRENDENDA	OLAZTI CLINKER
BAKAIKU DENDA	U HARTE ARAKIL UDALETXEA
ETXARRI ARANATZ UDALETXEO ESTALOPEAN	URDIAIN UDALETXEA
IRURTZUN PIKUXAR	ZIORDIA UDALETXEA

Egin zaitez bazkide!

Eta etxean jasoko duzu!







948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus




Arbizuko XX. mendearen lekukotzak aurkeztera

Herriko ahozko ondarearen bilduma egiteko adineko zortzi arbizuar elkarrizketatu zituzten. Ikus-entzunezko lan bat osatu dute testigantza horiekin eta lagina aurkeztuko dute

ARBIZU

Nafarroako Ondare Immaterialaren Artxiboa egitasmoarekin bat egin du Arbizuko Udalak. Haren helburuetako bat XX. mendeko Nafarroako gizarte tradizionalaren memoria eta testigantzak lehenbailehen biltzea da, horietako asko oso adineko pertsonak baitira. Labrit Ondarea enpresako Abel Castillok azaldu duenez, "ondare hau oso aberasgarria da, herrietako kultur genomaren antzekoa, horregatik, funtsezkoa da babestea eta hurrengo belaunaldiei transmititzea".

Jesus Mari Maiza Lacunza, Mari Paz Barandiaran Razkin, Patxi Leiza Berastegi, Mari Carmen Arbizu, Blanca Nieves Aldasoro Flores, Maria Pilar Arbizu, Pello Lopez De Sabando eta Ana Mari Uncilla Araña elkarrizketatu zituzten. Guztiak XX. mendearen lehen erdian jaiotakoak dira eta, beraz, makina bat aldaketa bizi izan dituen belau-naldi batekoak dira. Elkarrizketetan beraien bizipenak gogoratu eta haiei lotutako hainbat kontu azaldu dituzte, esaterako: eskaini dituzte, ohiturak, herriko hiztegia, jaiak eta txikitako nahiz gaztetako oroitzapenak.

Zortzi arbizuar horien esanen bidez joan den mendeko Arbizu



Bikote arbizuarra udaletxe parean. ARTXIBOA

nolakoa zen jakiteko aukera izanen da eta betiko gordea geldituko da. Esaterako, "lizarren hostoak sikatu eta ahuntzak elikatzeke erabiltzen genituen", gogoratu du Jesus Mari Maizak. Ana Mari Uncillak, berriz, apaizak parrokiako zinea jarri zuela martxan gogoratu du eta, hark pelikulak mozten zituen arren, Etxarriko pelikulek zentsura gutxiago pairatzen zutela. "Bonbolontena, nere laztana, ez egin lorik basuan. Aitzarizkoak eamango zaitu erbia zeralakuan. Loo. Loo. Loo" garaiko sehaska

kanta kantatu du Blanca Nieves Aldasorok.

Aurkezpena

Joan den udazkenean egindako zortzi elkarrizketek osatuko dute proiektua eta haien laginak ikusi eta entzuteko aukera izanen da Arbizuko udaletxean larunbatean, 12:00etan. Ekitaldian izanen dira Francisco Javier Razkin Flores alkatea, Alfredo Asiain Ansorena Nafarroako Ondare Immaterialaren Artxiboko zuzendaria eta Labrit Ondarea enpresako Castillo.

Biak Bat egoitza berrian

Mustutze eguna joan den ostiralean izan zen. Goizean agintariak pasa ziren handik. Arratsaldean, berriz, erabiltzaile, senide, lagun eta jakinmina zutenak. Biak Bat-ekoak pozik zeuden jendea joan zelako. Hilaren hasieratik dabilta bertan lanean. Gainera, erakundeekin zenbait hitzarmen adostu eta proiektu berriak eskainiko ditu elkarteak.



"Aldarrikapenerako eta festarako aitzakia dago"

OIHANA GALLO SAN ROMAN ETA AIZAGA ZEBERIO BERDINTASUN TEKNIKARIAK
Martxoaren 26an emakumezkoek osatutako kolore moreko zutabe batek ibarra zeharkatuko du. Lilasterketa da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak Martxoaren 8aren testuinguruan prestatutako programazioaren barruan dago Lilasterketa. Haren bidez, jendarteko eremu guztietan emakumezkoen eskubideak aldarrikatuko dituzte, besteak beste: enpleguan, kalean, politikan, etxean, hezkuntzan, festetan edo kirolean. Emakumezko guztien artean "hemen gaude" esanen dute, "denon artean aurrera joateko, gure ahalduntzearen bidean beste pauso bat gehiago egiteko".

Dagoeneko 10. edizioa.

Oihana. Pitteka-pitteka hamar urte egin ditu. Aurreneko edizioa 2014an izan zen. Garai hartan Garazi Urrestarazu Zubizarreta zen alkatea eta berdintasun teknikari Jaione Iraola Rozas. Azaldu digutenez, kontuan izan zituzten Donostian egiten den Lilatoia, Altsasun ere kirol zaletasuna zegoela eta emakumeak kalera kirola egitera ateratzeko interesa zegoela. Lilatoiaren antzeko zerbait antolatzea bururatu zitzaizen eta Lilasterketa izenarekin bataiatu zuten. Garai hartan, Altsasun egiten zen.

Ondoren, Udala Sakanako Mankomunitatearekin batera antolatzen hasi zen eta Lilasterketa ibarreko ekimena bihurtu zen.



Berdintasun teknikariak, atzean udal ordezkariak eta Altsasuko alkate ohia.

Aizaga. Hori da. Mank-eko Berdintasun Zerbitzua 2019an sortu zen eta, orduz geroztik, bi berdintasun zerbitzuen arteko elkarlana estua da. Horren adierazgarri da Lilasterketa bera ere; Mank-eko zerbitzua sortu zenetik biok antolatzen dugu ibarreko emakume guztiendako.

Kirola baino helburu gehiago ditu?

O. Kirol kutsua izan dezake, baina Lilasterketak emakumezkoak elkartzeko gune bat izan nahi du. Lilasterketarekin ere emakumezkoek kalea hartearen garrantzia azpimarratu eta al-

darrikatu nahi dugu. Lilasterketak bi formatu izan ditu hamar urte hauetan. Herri bakar batean ospatzea; garai batean Altsasun, eta joan den urtean, Olatzagutian. Herrian bertan martxa oinez, lasterkan, bizikletan edo patinetan egiten zen. 2020an, probaren bezperan, bertan behera gelditu zen pandemiak ezarritako konfinamenduagatik. 2021ean, pandemia betean geundenez, formatua berrasmatu eta Sakanan zeharkatu genuen. Batetik, eskualde ikuspegia emateko eta, garai hartan, talde handitan ezin

ginelako elkartu. Horregatik, herri bakoitzeko emakumezkoek beraien herriko zatia egin zuten. Herriz herri ibiltzearena oso esperientzia polita izan zen. Ederra izan zen Sakana guztiko emakumezkoak martxan egotea. Herrietan asko eskertu zuten. Bi formatuak nahastu nahi izan ditugu. Hamargarren edizioa denez, ibarreko martxa Altsasun bukatuko da. Baina Olatzagutitik eta Ziorditik pasatzeko moldaketa bat egin dugu.

Gaur egun, kirol zentzurik du?

A. Lehen Oihanak esan bezala, guri polita iruditzen zaiguna da emakumezkoak elkartzea, kasu honetan jarduera fisikoa egiteko. Baina, aldi berean, hainbeste urtetan gizonezkoendako izan den espazio fisikoa berrokupatzeko. Azken finean, jarduera fisikoa eginez kaleak hartzeko eta emakumezkoak elkarrekin, denon artean, ahalduntzeko. Helburua ez da bakarrik kirola egitea, hori ere izan daitekeela. Guretako helburu nagusia da adin, herri, hainbat jatorritako emakumezkoak elkartzea eta berdintasunaren alde Sakana guztia zeharkatzea. Eta ongi pasatzea ere bai. Aldarrikapenerako eta festarako aitzakia ere edukiko dugu egun horretan.

Korrika egin behar da?

O. Ez, ez. Oinez! Sakana egun bakarrean oinez zeharkatzeko nahikoa luzea denez, Arakil bizikletan zeharkatuko dugu. Beraz, Irurtzun eta Etxarren arteko bidea oinez egingen da, han bizikletek lekukoa hartuko dute eta Irañetarinoko zatia egingen dute. Eta Irañetatik aurrera, atzera ere, Lilasterketa oinezko martxa bihurtuko da. Altsasura iritsitakoan, bakarren batek ibilbidea lasterka edo bizikletan egin nahi badu, aukera izanen du. Baina,

berez, oinezko martxa da, bakoitzak bere martxan egiten duena. Lilasterketan nahi bezala parte hartu daiteke: herriko zatia eginenez, edo hurrengo herriraino joan. Edo aurreko herrian hartu eta hiru herrietara utzi.

Noiz abiatuko dira Irurtzundik?

A. Irurtzungo plazatik 09:30ean abiatuko dira. Irurtzundik Iturmendira arteko ibilbidea jarraian egingen dugu. Han atsedean hartuko dugu. Arratsaldean bi martxa aterako dira: 15:25ean Ziorditik eta 15:45ean Iturmenditik. Bi adarrak Altsasuko Beheko bentan elkartzeko dira 16:30ean eta Altsasun barna ibiliko da. Bukaera ekitaldia Foru plazan izanen da 17:00etan. Merienda egonen da. Eta, bukatzeko, Pantxika Lamurrek emanaldia eskainiko du Gure Etxea eraikinean, 18:00etan.

Izen emateko modua

- **Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuan** (948 56 48 23 / 628 32 85 93 edo berdintasuna@altsasu.net)
- **Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuan** (948 46 48 67 / 660 38 43 28 edo berdintasuna@sakana-mank.eus)
- **Googleko formularioaren bidez** (<https://labur.eus/vF5Gs>)
- **Egunean bertan herriko arduradunari, berdintasun zinegotziari, eman dakioke izena.**

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA
+2.000 bezerok gudan dute konfiantza

848 87 09 17
bertoko.eus

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 17

ALTSASU M8. Gazte agenda.

Rap ezkutuat musika tailerra, euskaraz. Altsasuko Udaleko Berdintasun eta Gazteria zerbitzuek martxoaren 8aren harira antolatutako egitarauaren barruan.

18:00etan, Intxostiapuntan.

URDIAIN M8. Ipuin kontalaria.

Hankaz gora! Berdintasun istorioak, Deibiz Ameztaren istorioak ipuin kontalaria, euskaraz.

18:30etan, herrientzeko auzoan.

ZIORDIA Liburu aurkezpena.

Peru Camara idazlearen *Galerna* liburuaren kafe solasaldia, gaztelaniaz.

18:30etan, liburutegian.

ALTSASU Performancea.

MATERNIDAD Farys Falcon artistaren performancea Uholdeak programaren barruan.

19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Altsasun pediatrik orain! Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko plataformak eta guraso talde batek deitutako elkarretaratzea.

19:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Mendi jarduerak:

Proiektzioa eta solasaldia.

La voz de Iñaki Iñaki Ochoa de Olza fundazioaren dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.

19:30etan, kultur etxean.

LARUNBATA 18

IRURTZUN M8. Escape room.

Berdintasunaren aldeko Tramankuluren III. Escape room: Uriz Pi ahizpak eta liburu debekatua, Irurtzongo XXX. Emakumeari buruzko jardunaldien barruan.

10:00etan, 11:30etan, 13:00etan,

16:30etan, 18:00etan eta 19:30etan, kultur etxean.

IRURTZUN Mendi jarduerak: Ikastaroa.

Edukanaturako Gema Urdanizek gidatutako martxa nordikoaren hastapen ikastaroa. Alde teorikoa, 45 minutu; alde praktikoa, 2 ordu eta 15 minutu.

10:00etan, Iratxo elkarte.

ARBIZU Proiektzioa.

Memoria inmaterialaren inguruan Labrit multimediak egindako Arbizuko zortzi lagunei elkarriketa antropologikoaren ikus-entzunezko lanaren proiektzioa.

12:00etan, udaletxearen batzar aretoan.

ALTSASU Gazte agenda.

Santig-era txangoa.

13:00etan, Aita Barandiaran egoitzako autobus geltokian.

ETXARREN Bazkaria eta ikuskizuna.

Arakilgo emakumeen bazkaria, Arakilgo Emakume taldeak antolatuta.

Iratzar taberna-jatetxean.

13:30 Bazkaria.

17:00 Lorena Arangoaren ikuskizuna.

ALTSASU Lasterketa.

XII. Altsasuko Duatloia. 27,5 kilometro: 5-20-2,5. Sakanako Triatlloi Taldeak antolatuta, zenbait laguntzaile eta babesleren laguntzarekin. Foru plazaatik.

14:30-15:30 Material kontrola.

15:45 Duatloiares hasiera.

ZIORDIA Festa.

Amarauna festa.

Amarauna gune autogestionatuan.

17:00 Zirko Loretsuaren

Lapurretak ikuskizuna.

18:00 Biodantza Laura

Urrutiarekin. Txokolatada eta aurpegi margoketa.

20:00 Bokata.

20:30 Bakarrizketa: Enrique

Loyolaren Hozkailura noa.

22:00 Karaokea eta musika gaua.

ALTSASU Kontzertua.

Zugardi Big Band taldearen eta Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleen Jazz Go! kontzertua.

19:00etan, lortia kultur gunean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

El caftán azul gaurkotasunezko filmaren emanaldia euskaraz
Igandea 19 19:30

El hijo gaurkotasunezko filmaren emanaldia euskaraz
Osteguna 23 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

La amiga de mi amiga zineforum filmaren emanaldia
Igandea 19 19:30

Saint Omcer zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 23 19:00

ARBIZU Kontzertuak.

Nafarroa 1512 eta Kontralde taldeen kontzertua eta Alerta Gorria taldearen parte hartze berezia. Nafarroa 1512 taldeko abeslariaren agur kontzertua.

22:30etan, Argi Bide elkarte.

IGANDEA 19

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Mintzakideen mendi paseoa: Etxarri Aranatz – Iturmendi – Etxarri Aranatz, partzelariatik.

09:30etan, plazan.

IRURTZUN M8. Escape room.

Berdintasunaren aldeko Tramankuluren III. Escape room: Uriz Pi ahizpak eta liburu debekatua, Irurtzongo XXX. Emakumeari buruzko jardunaldien barruan.

10:00etan, 11:30etan, 13:00etan,
16:30etan, 18:00etan eta 19:30etan,
kultur etxean.

IHABAR Festa.

Udaberriari eta gazta berriari ongietorri eguna.

Goizean zehar Oinez haur hiria, jauziak eta gazta egitea era tradizionalan.


10:30 Lehiaketarako postreak

jasotzea.

11:00 Gazta berriaren irekiera:

Movistar Team-eko Sheyla Gutierrez Ruiz, Ongi etorria eta Ihabarko II. Oroigarriaren ematea, eta otamena.

11:30 Ardi esnearekin egindako II. Postre Lehiaketa.



ALTSASU Uharte Arte Garaikideko Zentroko Uholdeak programaren Materialak amatu erakusketa.

Apirilaren 16ra arte.
Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

13:30 Lehiaketaren sari banaketa.

14:15 Umeen bazkaria.

14:45 Herri bazkaria.

17:30 Mus txapelketa.

18:00 Txokolatada 0 km-ko esnearekin.

ALTSASU M8. Kontzertua.

Sakanako Haize Berriak bandaren Emakumeak musikaren gailurrean kontzertua.

12:30etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Mendi jarduerak: Proiektzioa eta solasaldia.

Haizea Ramirez de Alda eta Unai Razkinen *Hiru hilabete 8000koen erresuman barrena. 900 kilometroko ibilaldia Everest eta Annapurna lotuz* proiektzioa eta solasaldia, euskaraz.

19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 20

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 21

ALTSASU Tailerra.

Ama-irakurketa eta idazketa tailerra Nerea Balda idazlearekin, Uholdeak programaren barruan.

17:30etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 22

ALTSASU Irakurketa kluba.

IRURTZUN Irurtzongo pintura tailerreko *Emakumea 8 eratan* erakusketa. Irurtzongo Emakume taldearen Emakumeari buruzko 30. jardunaldien barruan. Martxoaren 31era arte. La Tahona eta La Moncloa tabernetan.



Euskarazko irakurketa kluba: Mark Haddon idazlearen *Txakurrei gauean gertatutako istripu bitxia*.

18:15etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 23

IRURTZUN Mendi jarduerak: Hiltzaldia.

Esportrium Nutricioneo Javier Angulo Fernández eta Rodrigo Angulo Saizen *Bizitzan eta kirolean errendimendua izateko elikadura egoki baten garrantzia* hitzaldi eta solasaldia, gaztelaniaz.

19:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 24

ALTSASU Kontzertua.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren Sinfonika Nafarroan kontzertua.

17:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Altsasun pediatrik orain! Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko plataformak eta guraso talde batek deitutako elkarretaratzea.

19:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Mendi jarduerak: Proiektzioa eta solasaldia.

Alex Txikonen *Manaslu*. Arimaren mendia proiektzioa eta solasaldia, euskaraz eta gaztelaniaz.

19:30etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Mexikarrak Pantxo Valbuenarekin.

23:00etan, Leku Ona tabernan.

OROIGARRIA



Yeray Lanz Azpilikueta

V.urteurrena

Ametzen irrifarran
Aitaren samurtasunean
Mariaren begiradan
Niretarren besarkadetan
Familiaren oroitzapenetan
Lagunen begiradetan

Beti aurkitzen duzu, Yeray, zu sentiarazteko modua

Gure artean egongo zara beti
Maite zaitugu

Etxekoak
Marxoaren 16an



OROIGARRIA



Jose Joakin Ondarra Erdozia

'Kintxo'

X. urteurrena

Faltan botatzen zaitugu
eta bizitza osoan gogoratuko zaitugu.

Etxekoak
Bakaiku, 2023ko martxoaren 13an



ESKELA



Juana Aiestaran Zelaia

Ahazten ez dena ez da sekula hilko.

Agur ama, agur amona, agur birramona.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun
keinuz guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue.

Etxekoak

OROIGARRIA



Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

VI. urteurrena

Zu ikusi ez arren zaitugu gogoan,
zu ikutu ez arren zaitugu alboan,
zure itzala izango dugu beti gure artean

Etxekoak



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Pisu bat alokatzen da
Sakanan: 683 162 018.

SALGAI

Etxarri Aranatz pisu zentrikoa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edurne.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Jaibuserako arduradunak behar dira: Interesa dutenek bi baldintza bete behar dituzte, adin nagusikoa izatea eta euskaraz jakitea. Informazio gehiago Sakanako Oinarriko Gizar Zerbitzuetan: Irurtzun aldekoak 605 466 805 tfnora deitu, Etxarri Aranatz aldekoak 679 534 481 tfnora eta Altsasu aldekoak 616 841 995 tfnora.

OHARRAK

**Emakumeen bilgunea-
ren zabalpen zerrenda
martxan:** Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio-ko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezua bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

BTT zeharkaldian izena emateko epea zabalik: Ekainaren 11n egingo da zeharkaldia. Apirilaren 30a baino lehen izena ematen baduzu inskripzioa merkeagoa da. Informazio gehiago eta inskripzioak <https://www.rockthesport.com/web/orrian>.

**Sakanako Etxera egune-
ko bazkarirako txartelak
salgai:** Sarek antolatutako Etxera eguna Etxarri Aranatz egingo da, apirilaren 15ean. Bazkarirako txartelak Xapatero eta Leku Ona tabernetan salgai. Helduentzat 18 eurotan eta 14 urtera arteko haurrentzat 12 eurotan. Bazkaria frontoian izango da, 15:00etan.

**Altsasun lortia plazako
estalpeko egiturako
piezak trafikoan eragi-
na izango du:** marxoaren 17, 24 eta 27an ekarriko dituzte eta horren ondorioz trafiko mozketak egongo dira eta Idertza-gain eta Erkuden kaleetako zenbait aparkalekue-
tan ezingo dira kotxeak utzi. Adi egon Udaltzaingoa-
ren jarraibideetara.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Beñat Tainta Senar**, marsuaren 9an Altsasun

EZKONTZAK

- **Nestor David Santillan Guajan eta Nina Pakari Vega Cotacachi**, marsuaren 11n Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Florentino Goikoetxea Anso**, marsuaren 10ean Bakaikun
- **Ignacio Madinabeitia Ayaga**, marsuaren 13an Uharte Arakilen
- **Juana Aiestaran Zelaia**, marsuaren 14an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

 948 19 70 70
 @Grupolrache
 Grupolrache
 www.tanatoriosirache.es



50. hamarkadan Lagun Onak elkarteko kuadrillak sortutako atletismo taldea: Club Deportivo Alsasua. UTZITAKOA

Atletismoan, urrezko Altsasu

ATLETISMOA Nafarroako Atletismo Federazioak bere 100. urteurrena marsuaren 23an ospatuko du, Baluartean. Galan Altsasuk urrezko intsignia jasoko du "Nafarroan atletismoaren eta atletismo federazioaren aitzindari eta fundatzaile izateagatik"

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU 100 urte borobil beteko ditu Nafarroako Atletismo Federazioak, eta urteurrena ospatzeko gala berezia antolatu du ostegunean, marsuak 23, 19:00etan, Baluartean. Altsasu izango da gala horretako protagonistetako bat. Altsasuk urrezko intsignia jasoko du atletismoak herrian egin duen ibilbide luzearengatik. "Altsasu Nafarroako atletismoaren eta atletismo federazioaren fundatzaileetako bat da, atletismoaren aitzindarietako bat. Horregatik, Nafarroako Atletismo Federazioaren lehen mendeurrenean urrezko intsignia jasoko du federazioaren eskutik" azaldu dute Nafarroako Atletismo Federazioako ordezkariak. Altsasun atletismoa sustatu duten norbanako, elkarte, klub eta bestelakoen lan ordainezina aitortuko du federazioak.

Federazioaren erabakia "oso pozik" jaso du Dantzaleku Sakana atletismo klubak. Kluba 1992. urtean sortu zen, eta aurretik altsasuar askok modu indibidualean edo bestelako talde eta elkarten bidez atletismoan egindako lan ordainezinaren lekukoa hartu zuen.

Lagun Onakeko kuadrilla

Altsasun lehendabiziko lasterketak noiz antolatu ziren ez dago jakiterik, baina herriko festetan beti egoten zen lasterketa, desafio edo erronkaren bat. Ohikoak ziren. Orduan modu indibidua-

ALTSASUKO FESTETAN BETI EGOTEN ZEN LASTERKETA, DESAFIO EDO ERRONKAREN BAT

lean edo partikularrean hartzen zen parte lasterketetan, ez baitzegoen halakoak antolatzeko klub edo talderik. Korrikalari partikularrek sustatu zuten atletismoa hasiera haietan, lagun kuadrillek.

50eko eta 60ko hamarkadetan, Espainiako txapelketetan zenbait korrikalari altsasuarrek (Jesus Aldasoro, Felipe Villarreal Julian Martinez "Ubilla", Candi Arnanz...) Nafarroa ordezkatu zuten. Horiek dira, agian, korrikalari altsasuar ezagunenak, "baina haien ondoko gainontzeko korrikalariak ezin dira ahaztu, euren kuadrilla guztia korrikalariak baitziren. Lagun Onak elkarteko kuadrillaz ari gara. 40ko hamarkadan hasiko ziren korrika. Lasterketetan, euren kabuz parte hartzen zuten, ez baitzuten klubik. Batzuk, Candi Arnanz eta Guinea, esa-

terako, Gimnastika Ulia taldean ibili ziren. Azkenean, eta lasterketetan klub gisa lehiatu ahal izateko, Lagun Onak elkarteko kuadrillakoek euren kluba sortzea erabaki zuten. Horrela, Altsasuko lehendabiziko atletismo taldea sortu zuten: Club Deportivo Alsasua. 50eko hamarkada inguruan izango zen" azaldu du Dantzaleku Sakana klubeko Peio Vergarak. Argazki zaharretan, C.D.A. leloa duten kamisetak jantzita ageri dira Lagun Onakeko kuadrillakoak.

C.D.A.

Lagun Onak elkarteko kuadrilla edo Club Deportivo Alsasua toterrenoaren zen. "Guztia egiten zuten: korrikalariak ziren, lasterketak antolatzen zituzten, festetako proba guztiak, denbora kronometratzen zuten... guztia. Gogoan dut Jose Luis Vergara, "El Txipi", eta Jose Mari Misiego zirela lasterketak kronometratzen zituztenak. Haiek ez ziren argazkietan ateratzen, baina ezinbestekoak ziren (kar, kar). Txipik lasterketei hasiera emateko erabiltzen zuen pistola gordea dugu Dantzaleku Sakana klubean. Berriki jokatu zen Altsasuko Krosean ere pistola horrekin eman zitzaion irteera lasterketei. Eta federaziotik eskatu berri digute, erakusketan jartzeko" gaineratu du Vergarak.

Esan bezala, kuadrilla horretako zenbait korrikalarik Nafarroa ordezkatu zuten Espainiako Atletismo Txapelketetan. "Behin, Nafarroako selekzioko bederatzi korrikalarietatik zazpi Lagun Onakeko kuadrilla honetako kideak izan ziren. 1952. urtean, Nafarroako selekzioko hamar korrikalarietatik bost altsasuarrak ziren: Candi Arnanz, Jesus Aldasoro, Felipe Villarreal, Ginea eta Lucas Larraza. Berriekin Miguel de la Quadra Salcedo zegoen. Orduko argazki ederrak daude" gaineratu du Vergarak. Dantzaleku Sakanako kideak argi du garai haietan Altsasun atletismoa zela kirol garrantzitsuenetako bat, "futbola baino gehiago, esango nuke. Atletismoa, txirrindularitza eta

pilota ziren kirol nagusiak orduan Altsasun. Eta horren isla dira orduan sortu ziren lasterketak, egun Nafarroako proba beterranoenak direnak: Altsasuko Krosa, San Silvestrea, Eskolarteko krosa eta festetan jokatzen den afizionatuen Altsasuko Proba. Korrikalari eta txirrindulari partikularrek sortu zituzten proba horiek, lagun kuadrillek, eta ondoren sortu ziren klub edo taldeek hartu zuten probak antolatzeko lekukoa".

Dantzalekuk lekukoa hartu zuen

1968ko otsailaren 5ean, Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasu Kirol Elkarteak sortu zen, eta klub sortu berriak, beste kirolekin batera, atletismoa sustatzeko arduratu hartu zuen, Club Deportivo Alsasuaren tokia hartuz. Ondoren, 1992. urtean, Dantzaleku Altsasu Atletismo Kluba sortu zen, gerora Dantzaleku Sakana izena hartu zuena, eta atletismoaren lekukoa hartu zuen. "Altsasuko korrikalari aitzindariak eta elkarte eta klub desagertuek aurretik egindako lan guztiaren fruitua jaso genuen. Altsasun bizitza guztian antolatu izan diren lasterketen lekukoa hartu genuen, eta aurrerajarratzen dugu" nabarmendu du Vergarak, bere garaian aitzindariak egindako lana gorai-patuz.

Horregatik, Nafarroako Atletismo Federazioaren urrezko intsignia jasotzea "opari ederra" izango da. "Pentsa, Nafarroako proba zaharrenak dira gureak, eta pentsatzen dut ere hortik etorriko dela Altsasuk jasoko duen aitortza. Altsasuko Krosaren 37. edizioa izan da aurtengoa, baina 51 urte bete dira Dantzalekun krosa antolatzen zenetik, orduko korrikalariak esker. Bestalde, San Silvestrearen 43. edizioa jokatu zen. Lagun Onak elkarteak hasi zen proba antolatzen, lekukoa Dantzalekuri pasatu arte. Eta Ferietako Eskolarteko Krosaren 42. edizioa izan zen azkenekoa. Aitzindariak ereindako fruitua jaso dugu" dio Vergarak. Peio Vergara izan zen Eskolarteko Krosaren hasierako antolatzaileetako bat, garaiko beste kirol monitoreekin batera. 51 urte daramatza atletismoa sustatzen, eta bera izango da urrezko intsignia jasotzeko ekitaldira joango direnetako bat, Dantzaleku Sakanako presidentea Iñigo Agirrerekin eta Dan-

LAGUN ONAKEKO KUADRILLAK CLUB DEPORTIVO ALSASUA SORTU ZUEN, KLUB GISA LEHIATZEKO



1952ko Espainiako Txapelketa. Arnanz, Aldasoro, Villarreal, Guinea eta Larraza.



Korrika desafioa Altsasun, Arnanz eta Aldasoro. Ubilla izan zuten aurkari. UTZITAKOA



Dantzalekuko kideek 1998 urtean ateratako argazkia. UTZITAKOA

tzaleku Sakana kirol eskolako monitore Aitor Mendozarekin batera. Altsasuko alkatea ere gonbidatu dute, "herri guztia ordezkatzan duelako eta saria Altsasuri ematen zaiolako".

Dantzaleku Sakanak 160 bazkide inguru ditu. Urrezko garaia bizi du klubak, Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolan inoiz baino gaztetxo gehiago trebatzen ari direlako, 70 neska-mutil, Fermin Azkargorta, Aitor Mendoza eta Ekhi Olabiderek. Hiru diziplinak lantzen dituzte; jaurtiketak, pista eta krosa. Horretaz gain, mendi sekzioa du klubak, trail probetan parte hartzen duten korrikalariena. "Sasoi onean dago kluba, baina honek segida izan dezan eta proiektua sendotzeko Dantzaleku Sakanako juntan jende berria sartzea ezinbestekoa da, korrikalariak, gurasoak, monitorea, gazteak... guztiak ordezkatzuta egoteko. Beteranoak beti egongo gara laguntzeko prest, baina gazteak dira etorkizuna, eta erreleboa lotu beharra dago" argi du Vergarak.

Dantzalekuren probak

Dantzaleku Sakanak hainbat proba antolatzen ditu, eta beste horrenbestetan laguntza ematen du. Antolatzen dituen artean daude otsailaren 25ean jokatu zen Altsasuko Krosa, Nafarroako Kros Laburra izan zena; apirilaren 16an jokatu den Bargagain Igoera edo traila; urriaren Ferietan antolatzen dituen Onddo Lasterketa eta Eskolarteko Krosa, aurten 43. edizioa izango dena, eta San Silvestrea, 44. edizioa izango dena.

Bargagain, berria

Bargagaingo Igoera trail proba berria da, 2021ean lehenengoz antolatuta zuten igoerari lekukoa hartuko diona. "2021ean Bargagaingo Gurutzera igoera egin genuen, 4,2 kilometrotan 625 metroko desnibela. Proba 20 kilometroraz luzatzen bagenuen Navartrail Txapelketaren barruan sartuko zutela eta Nafarroako Banakako Trail Running Txapelketa izendatuko zutela proposatu ziguten Nafarroako Atletismo Federaziotik. Gure eskualdea polita dela, eta Navartrail proba bat hemen egin nahi zutela. Animatu ginen, eta zirkuitu polita prestatu dugu. Aurki zabalduko da izena ematea" azaldu dute Dantzaleku Sakanatik. Altsasutik Bargagainera



Zirkuitu iraunkorra Usolarraindik ezkerretara prestatuko da.

Kros zirkuitu iraunkorra egingo da

Dantzaleku Sakana klubak eta Altsasuko Udalak akordioa sinatu dute Altsasuk kros zirkuitu iraunkorra izan dezan. Usolarraindik ezkerretara egingo da zirkuitu berria. "2 kilometroko zirkuitua izango da. Markatuta egingo da, eta nahi duen orok erabili ahalko du, entrenatzeko, korrika egiteko edo paseatzeko. Zirkuitu polita izango da, Usolarraingo merenderoetatik gora egingo duena, uharkaraino. Aldapa polita du, kros zirkuitu batek aldapa izan behar duelako. Altsasuko Krosa jokatu zenean Nafarroako Atletismo Federazioko presidenteari erakutsi genion, eta izugarri gustatu zitzaion" aipatu du Vergarak. 2024ko ilbeltzean mustuko da zirkuitua, Altsasuko Krosean. "Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa hartuko du zirkuitu berriak. Eta gero ibilbidea markatuta geratuko da, guztiendako".

igota, gailurreriatik aurrera egingo du bideak, ehiztarien bidetik Urdiainera jaisteko. Parke ondoko partzelarietatik Iturmendiraino iritsiko da proba eta Iturmenditik Santa Marinara igoko da, han buelta hartu eta gailurreriatik Urdiaingo portua jaisteko. Partzelarietatik Altsasura helduko da.

Elkarlana

Bestalde, Dantzaleku Sakanak hainbat lasterketan laguntza edo elkarlana eskaintzen du. Apirilaren 1ean Kepa Gordok Uharte Arakilen egingo duen ekimen solidarioan laguntza eskainiko du, Gordo Dantzaleku-Sakanakoa delako. 12 orduko denbora tartean 9 igoera egin nahi ditu korrikalariak. Egunean barna Uharte Arakilen antolatuko diren ekitaldietan jasoko den dirua Nafarroako Esklerosi

Anitza Elkartearendako izango dira, elkarleku exoeskeleto bat erosi ahal dezan. Momentuz 106.000 euro bildu ditu elkarlekuak, baina oraindik diru gehiago behar da. 2022an Gordok 8 igoera egin zituen San Migelera eta ekitaldian jasotako 7.850 euroak Noelia Fundaziora bideratu ziren. Aurten 9 igoera egin nahi ditu.

Josefina Arregi Klinikak maiatzaren 14an antolatuko duen II. Alzheimer Lasterketan ere laguntza emango du Dantzalekuk. "Aurten berrikuntza dago, egun bat lehenago, maiatzaren 13an, Dantzaleku Sakanako kideek Osasuna futbol taldeko beteranoen kontra futbol partida jokatu dutelako Dantzalekun. Jasotakoa klinikarendako izango da".

Ekainaren hasieran jokatu den Aitzkozar Krosean ere lagunduko du Dantzalekuk, eta aurten lasterketara Urdiain batu dela aurrerat du. Lasterketa Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku artean jokatu da. Bukatzeko, irailaren 3an jokatu den Trioienea mendi lasterketan laguntza emango dute baita ere. "Denetarikoa kausak babesteko prest gauden klub irekia gara".

**"DANTZALEKUK
AITZINDARI HAIK
EGINDAKO LANAREN
FRUITUA JASO ZUEN"
PEIO VERGARA**

"Maila honetara hain azkar iristea ez nuen espero"

ASIER GALARZA IRIARTE PALISTA

PALETA GOMA Asier Galarzak eta Andoni Alberrok Euskal Herriko Kluben Arteko Ohorezko Mailako Paleta Gomako Txapelketa irabazi zuten ostiralean Bakion

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Marsuaren 10ean, Euskal Herriko Kluben Arteko Ohorezko Mailako Paleta Gomako finala jokatu zuten San Juan B taldeko Asier Galarza irurtzundarrak eta Andoni Alberro iruindarrak Legutio B taldeko Gereñuren eta Arronizen kontra, Bakion. Final estu eta gogorrean gailendu eta gero, Galarzak txapela etxera ekarri du.

Frontenis txapelketa zara. Noiz hasi zinen paleta goman?

18 urtera arte esku pilotan aritzen nintzen, eskuek ongi iraun zuten arte. Gero frontenisean hasi nintzen, eta oraindik jarraitzen dut. Baina duela urte eta erdi, lagun batek tentatuta, paleta goman hasi nintzen, Nafarroako Hirugarren Mailako Txapelketan. Hura irabazi eta gero, Bigarren Mailara igo nintzen. Neguan Bigarren Mailako bi txapelak irabazi ditut, Banakakoa eta Binakakoa, eta Lehen Mailara igo naiz. Egia esan, ez nuen uste urte eta erdian maila honetan egongo nintzela. Ez nuen espero, inondik inora.

Egun palan zentratuta al zaude?

Irailean, denboraldia hasi zenean, bietan nenbilen. Baina palan aurrera pausoa emateko frontenis pixka bat albo batera uztea gomendatu zidaten. Gainera, ez



Asier Galarza Iriarte, eskuinean, Andoni Alberro taldekidearekin. UTZITAKOA

zen Nafarroako Frontenis Txapelketa atera, eta palan zentratu nintzen. Nik antolatzen dudana Eguberrietako Irurtzango Frontenis Txapelketan izan ezik, azken hilabeteetan ez naiz frontenisean aritu. Hori bai, maiatza aldean frontenis entrenamenduei ekingo diet, udako 24 orduko frontenis torneoetan lehiatzeko. **San Juan klubeko palista zara. Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketan Andoni Alberro izan duzu bikotekide.**

Aurten, elkarrekin jokatzeko proposatu zidan Andonik. Eta

klubak, San Juanek, Euskal Herriko Kluben Artekoan parte hartzeko aukera eman zigun. Gu San Juan B taldea ginen, eta San Juan A taldekoak Urtasun eta Legarra ziren. Paleta Gomako Ohorezko Mailan zazpi bikotek parte hartu genuen.

Nolakoak ziren arerioak?

Egia esan, txapelketa nahiko gogorra izan da. Lehendabizi ligaxka jokatu genuen, guztiak guztien kontra. Guk hiru partida irabazi genituen eta hiru galdu, eta laugarren postuan sailkatu ginenez, finalerdietan ligaxkan

lehendabizi sailkatu zen bikoia izan genuen aurkari: Larrabetzuko Erlantz Garcia eta Mikel Artaraz. Beraiek ziren faborito argiak, ordura arte dena irabazi baitzuten. Guk nahiko erraz galdu genuen euren kontra ligaxkako partidari. Finalerdia Larrabetzun jokatu zen, eurak ziren faborito nagusiak, baina partida oso ona jokatu, gu gailendu ginen.

Hortaz, sorpresa eman zenuten. Agian faboritoak zirelako zuek presiorik gabe jokatu zenuten, lotsa-gabe, eta horrek mesede egin zizuen.

Baietzesangonuke. Gukez genuen ezer galtzeko, beraiek zirelako faborito argiak. Pentsa, 25 partida zeramatzen jarraian irabazita. Gainera, euren etxean jokatu genuen. Egia esan, ia bukaerara arte lotsagabe aritu ginen, izugarri arriskatu, baina bukaera aldean, irabazteko aukera gurea ikusi genuenean, paperak aldatu ziren. Beraiek gehiago arriskatzeko hasi ziren. Azkenean estu-estu ibili ginen: 23ra berdindu eta gero, azkeneko bi tantoak gure alde erori ziren eta 25 eta 23 irabazi genuen.

Beraz, txapelketako faborito nagusiak irabazita iritsi zineten finalera. Marka guztiak apurtuta. Finalean Legutio B taldea zenuten aurkari.

Legutio B-koak joan zen urteko txapeldunordeak ziren, Gereñu eta Arroniz. Ligaxkan euren kontra galdu egin genuen. Lehendabiziko partida izan zen, eta inozente xamar aritu ginen. Beraiek ere finalerdian sorpresa ematek zetozen, gure klubeko San Juan A taldeko Urtasun eta Legarra irabazi zituztelako.

Nola planteatu zenuten finala?

Partida gogorra espero genuen, baina behin finalera helduta, irabazteko nahia genuen. Gereñuk eta Arronizek oso bikote gogorra

osatzen dute eta partida luzeak jokatzen dituzte, oso fisikoak. Hasieran ez zitzaizkigun jokaldiak oso ongi ateratu, eta beraiek abantaila txikia hartu zuten. Guk ere partida gogortu beharra genuela jabetu ginen, eta horretan saiatu ginen. Tarte horretan beraiek baino gehiago asmatu genuen, eta abantaila nahikoa hartzea lortu genuen, bukaerara arte mantendu genuena. 25 eta 18 irabazita, oso kontentu gaude. Beraiek fisikoki gehiago nekatu ziren eta guk hobeto eutsi genuen. Partida oso luzea izan zen, ordu bat eta 40 minutu ingurukoa. Hori paleta gomarako asko da. **Atzelariak lehertuta bukatuko zuten.** Partida luzeetan atzelariak karga gehiago hartzen dute fisikoki. Esku pilotan nabaritzen bada, paleta goman are gehiago. Gainera, Legutiokoek ia dena atzera jokatzen zuten. Halakoetan, batzuetan aurrelariok atzerapauso bat eman behar izaten dugu, bikotekidea laguntzeko, gero aurrera pauso bat eman ahal izateko. Horretan saiatu nintzen. **Noiz duzue hurrengo txapelketa?** Maiatza eta ekainean Nafarroako Lehen Mailako Paleta Gomako Binakako Txapelketa jokatu da eta Andoni Alberroarekin jokatu dut. Lehen Mailako salto gehienbat abiaduran nabaritzen da. Nafarroan paleta goman sekulako maila dago, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere, eta denbora luzez goian egotea ez da erraza. Baina saiatuko gara.

"FINALA LUZEA ETA GOGORRA IZAN ZEN, ORDU BAT ETA 40 MINUTUKOA. GUK HOBE EUTSI GENION"

Euskal Herriko txapeldunordeak

PALETA GOMA Larunbatean Euskal Herriko Emakumeen Irekiko Paleta Goma finalak jokatu ziren Mallabian. Lehen mailan, Espinallek eta Irati Igoa etxarriarrek 23 eta 30 galdu zuten Ardanazen eta Luserretaren kontra, eta Bigarren mailan Kerejeta eta Mazizor hernaniarrek 30 eta 17 irabazi zieten Gure Pilotako Ane Escalari eta Olaia Eizagirreri.



Aratz Sanzol, Espainiako Bloke Kopari begira

ESKALADA Eskalatzaile altsasuarrak Nafarroako Bloke Txapelketa irabazi du, Nafarroako selekzioan dago eta martxoan eta maiatza bitartean Oviedon, Madrilen eta Cuencan jokatu den Espainiako Bloke Kopan lan ona egin nahi du

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Aita eskalatzailea izanda, aurki zintzilikatu zen soka Aratz Sanzol Lumbreras altsasuarra. "Mendira gurekin etortzen ziren haurrak. Txiki-txikiak zirenetik eskalatzen dute" dio Jaime Sanzol aitak. Altsasuko rokodromoan ere ibiltzen zen Aratz, blokean, "hasieran beste jolas bat bezala zen". Baina, denborarekin, eskalada gustuko kirol bilakatu da. Nolako egurra, halako ezpala. Saskibaloiarekin uztartzen du.

Blokea eta zailtasuna

Bloke eskaladan eta zailtasunean edo soka eskaladan aritzen da Aratz Sanzol. "Blokea rokodromoan prestatutako lau metro eta erdiko egituretan egiten den eskalada da. Hasierako presak markatzen dizkizute, eta goian presa bat jartzen dute, helmuga dena. Bide hori egiteko modurik egokiena eta errazena aukeratu beharko duzu. Blokea oso teknikoa da, eta eskaladaren esentzia jasotzen du: indarra, mugimendua eta koordinazioa" azaldu du Jaimek. Zailtasun edo soka eskaladak, aldiz, haitzean egiten den eskaladarekin antzekotasun handiago du. "Rokodromoetan prestatutako eremu zabalak dira. Eskalatzailea lotuta dago, hasiera eta helmuga markatzen diz-



Aratz Sanzol Lumbreras, Altsasuko rokodromoan entrenatzen. UTZITAKOA

kiote eta soka tartekako prestatik pasatu beharko du. Kateatzen duen presa bakoitzeko puntuak lortuko ditu. Puntu gehien dituenak irabaziko du. Modalitate honek erresistentzia eta teknika eskatzen ditu, eskalada mugimendu gehiago baitira".

Soka & block

Aratzen lehen proba, Landabengo Bihatz rokodromoan jokatu-tako soka & block txapelketa izan zen. "Izen hori du bi modalitateak hartzen dituelako, soka eta blokea. 10 urte izango nituen, eta ongi

pasatzeko asmoz aritu nintzen, aitak animatuta. Gustura ibili nintzen" dio Aratzek. "Soka & block txapelketak oso herrikoiak dira. Egun polita pasatzea da helburua, gozatzea. Giro polita egoten da. Irabazten duena pozik, eta beste guztiak ere bai. Filosofia horrekin hasi ginen" aipatu du Jaimek. 2021ean, Nafarroako Bloke eta Zailtasun Txapelketetan aritu zen Aratz. "Egia esan, soka & block txapelketa batekin ez du horrenbesteko alderik. Arauak zorrotzagoak dira txapelketan, baina antzeko jendea

ibiltzen da, zirkulu ia berbera da" dio Jaimek. Aratzek 12 urte zituen, eta 14 urtez azpiko kategorian lehiatu zen. "Ez zegoen jende asko, eta irabazi nuen. Domina lortu nuen, eta poz handia sentitu nuen" oroitu du.

CESA eta gainerakoak

2022 urte hasieran, saskibaloian gehiago ibili zen, eskalada bigarren mailan utzita. Baina, ekainean, Nafarroako eskalada hautatzaile Javi Berasaluzek proposatu zion Espainiako Mendi Federazioak (FEDME) antolatutako Espainiako 18 urtez azpiko CESA selekzioen arteko eskalada txapelketan parte hartzea. Aurreko urtean Nafarroako txapelduna izan zenez, Aratzek CESA-n aritzeko tokia ziurtatu zuen. Baiezkoa eman eta hortik aurrera eskaladan entrenatzen hasi zen. "Estatu osoko eskalatzaileek parte hartzen genuen, kategorია bakoitzean agian 70 inguru. Finaletara zortzi sailkatzen ziren, eta ni bederatzigarren izan nintzen. Oso gutxigatik. Pena, baina..." dio Aratzek. Espainia mailan lehen aldiz lehiatu eta bederatzigarren sailkatzea, ez da txantxetako kontua. Ondoren, 2022ko urrian eta azaroan, Espainiako Bloke eta Zailtasun Txapelketetan parte hartu zuen, Cuencan eta Madrilen. Blokean hamahirugarren sailkatu zen, eta zailtasunean, hamabigarren.

Aurten kategoría mustu du Aratzek. 14 urterekin, 16 urtez azpikoan lehiatzen da. Marsuaren 4an Nafarroako Bloke Txapelketa jokatu zen Lizarran, eta 12 eskalatzaileen artean bera gailendu zen. "Nafarroako selekzioan gauden bizpahiru eskalatzaileak maila onena dugu. Jon Villegas, Amets, ni... Orain Caparrosoko mutiko bat hasi da. Eta neskek

ere sekulako maila dute" dio. Bera da selekzioan dagoen saskandar bakarra, baina Nafarroako Txapelketan Oihana Paniagua altsasuarrak parte hartu zuen, eta bosgarren edo seigarren sailkatu zen. Nafarroako Soka Eskalada Txapelketa apirilaren 4an jokatu da Rocopolisen.

Blokean zentratuta

Egun, Aratz blokean entrenatzen ari da buru-belarri, Espainiako Bloke Kopan parte hartuko baitu Nafarroako selekzioarekin. Hiru proba dira: marsuaren 25-26an Oviedoko jardunaldia jokatu da, apirilaren 15-16an Madrilgoa eta maiatzaren 20-21ean Cuencakoa. Altsasuko rokodromoan entrenatzeaz gain, selekzioa kideekin Iruñean entrenatzen du, Sergio Delgado Nafarroako eskalada hautatzaile berriaren esanetara. Altsasun bizi den Talo Landaluze da selekzioa bigarren entrenatzailea. "Kopa erronka zaila da, baina gogotsu nago, goian egoteko aukera gehiago ikusten ditudalako. Iaz baino pixka bat hobeki aritzea espero dut, eta finalean sartu ahal banaiz, hobe" dio Aratzek. Asteburuan, selekzioarekin teknifikazio saioa dute, eta Bilbon Euskadiko Bloke Txapelketa jokatzenez, bertan ariko dira, prestaketa gisa. "Proba asko dira, baina pozik nago. Askok ikasiko dut" dio Aratzek. "Duzun maila ematea. Hori da, eskaladan, egingaikoarekin gustura geratzea" gomendatu dio aitak.

"ESPAINIAKO BLOKE KOPA ERRONKA ZAILA DA, BAINA GOGOTSU NAGO" ARATZ SANZOL



martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin



Bete ezazu despensta urte guztiarako

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus





Zabaleta eta Laso. J.M.LOPEZ

PILOTA Zabaleta, Binakako finalerako txartelaren bila

Binakako finalerdietako ligaxakako bigarren jardunaldia jokatu da egunotan. Lehen jardunaldiko bi irabazleek, Elordi-Zabaletak eta Laso-Imazek, larunbatean Labriten jokoan dagoen bigarren puntuagatik borrokatu dute. Bigarren garaipena lortzen duen bikoak hanka eta erdia baino gehiago izango du finalean. Partida "oso zaila" izango dela argi dute laurak.



Kadeteen Andra Mari eta Iñigo Aritza.

HERRI KIROLAK Andra Mari eta Iñigo Aritza, sokatiran nagusi

Igandean Olaztik Nafarroako Herri Kirol Jokoetako bigarren jardunaldia hartu zuen. Erburua kiroldegia txiki geratu zen proba konbinatuetan parte hartu zuten 41 taldeen eta sokatiran lehiatu ziren 11 taldeen lehiak jarraitzeko. Sokatirako kadete mailan Iñigo Aritzaren eta Andra Mariren nagusitasuna agerikoa izan zen. Euren arteko lehian Andra Mari gailendu zen.

Altsasuk 220 duatleta bilduko ditu, aldaketekin

DUATLOIA Larunbatean 10:30ean jokatu diren Nafar Kirol Jolasetako probetan 120 duatleta inguru daude izena emanda, eta 15:30ean jokatu den XII. Altsasuko Duatloia proba nagusian, 100 duatleta. Trantsizio gunea plazan egongo da

Maider Betelu Ganboa ALTSASU 2023ko Nafarroako duatloi denboraldia Sakanara heldu da. Larunbatean, marsuak 18, XII. Altsasuko Duatloia jokatu da, eta aste bat barru, marsuaren 25ean, XXV. Arbizuko Duatloia- ren txanda izango da. Izena ematea zabalik dago, Nafarroako Triatloi Federazioko webgunean.

Goizez eta arratsaldez Sakana Triatloi Taldeak antolatu du Altsasuko Duatloia. Bi proba jokatu dira. 10:30ean Nafarroako Kirol Jokoetako (NKJ) Altsasuko Duatloia jokatu da, Txioika ikastola parean, lau kategorietan: benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak-jubenilak. Arratsaldean XII. Altsasuko Duatloia- ren txanda izango da. 15:45ean abiatu dira proban izena eman duten 100 duatletak, plazatik, eta helmuga ere plazan egongo da. 5 km korrika, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrika osatu beharko dituzte.



Trantsizio gunea ez da lortian egongo.

Aldaketa asko Korrika egiteko tartea antzekoa da, 2,5 kilometroko zirkuitua herri gunean, baina Altsasuko Duatloiak nobedade garrantzitsuak ditu. Nabarmenena da trantsizio gunea, hau da, bizikle-

ta hartu eta uzteko gunea, Foru plazan bertan egongo dela, eliza parean, Iortiako plazako obrak direla eta. Txirrindularitza tartea ere aldaketa izango du. Aurten parte hartzaileek ez dute Gipuzkoa alderantz joko. Foru plazatik Beheko Bentara jaitsi eta Olaztirantz joko dute duatletek, ez-kerraldara sartuta Altamira igotzeko. Bidegurutzean Olaztira jaitsita, Altsasuraino iritsiko dira, udaletxe parean buelta hartu eta ibilbide berbera erreplikatzeko. Banaka edo errelebo- ka parte hartu ahal izango da.

Sakana ongi Arangurenen Sakana Triatloi Taldeko duatletek Arangurengo Duatloian parte hartu zuten aurreko asteburuan. Hiru sakandar Top 20an sailkatu ziren: Sergio Garcia zazpigarren sartu zen, Francisco Javier Gomez hamaseigarren eta Juan Luis Maiza hamazazpigarren.



BARGAGAIN TAEKWONDO TALDEA

FUTBOL PREFERENTEA

23. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Lezkairu	1-0
Itaroa Huarte B - Etxarri Aranatz	1-1
Lagun Artea - Soto Ibarbaso	1-2

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Amigo	50
8 Altsasu	32
17 Etxarri Aranatz	15
18 Lagun Artea	10

HURRENGO JARDUNALDIA	
MARSUAK 18, LARUNBATA	
16:30 Soto Ibarbaso - Altsasu (Taxoare 5)	
17:30 V. Egües B - Lagun Artea (Sarriuren)	
MARSUAK 19, IGANDEA	
17:00 Etxarri Aranatz - Burladés (San Donato)	

Altsasu zortzigarren da Azkeneko garaipenari esker, Altsasu sailkapenean igo da. Soto Ibarbasoren kontra bide beretik segi nahi du.

Etxarrik Burladés hartuko du Gutxika puntuak biltzen ari da Etxarri. Igandean Burladés izango du aurkari eta hiru puntuak eskuratzera aterako da.

Lagun Artea, Egües estutzero Lagun Arteak Valle de Egüesen kontra jokatu du, nor baino nor aritu eta hiru puntuak lortzeko itxaropenarekin.

EMAKUME PREFERENTEA

18. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Valle de Egües - Altsasu	1-0

SAILKAPENA	
EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA	
1 Mutilvera B	45
7 Altsasu	16

HURRENGO JARDUNALDIA	
MARSUAK 18, LARUNBATA	
16:00 Altsasu - Oberena (Dantzaleku)	

Altsasuk Oberena hartuko du Emakumezkoen Preferente Mailan Altsasuk Oberena hartuko du.

FUTBOL ERREGIONALA

21. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasu B - Berriozar	1-2

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1 Beti Onak B	54
12 Altsasu B	19

HURRENGO JARDUNALDIA	
MARSUAK 18, LARUNBATA	
19:45 S. Fermin ikastola - Altsasu B (NUP)	

Altsasuk arerio zuzena aurkari Altsasuk San Fermin ikastola izango du aurkari. Arerio zuzenen arteko partida da.



Peru Camara idazlea 'Galerna' bere lehenengo eleberriarekin, Donostian. UTZITAKOA

"Pertsonaiekin identifikatu ahal izatea gustatzen zait"

PERU CAMARA IDAZLEA

Altsasuko institutuko ingeles mintegian zegoen 'Galerna' bere lehenengo eleberria argitaratuko zutela jakin zuenean. Gaur, berriz, Ziordiko liburutegian izanen da

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

Gehienetan, jendeak norberaren burua deskribatzean duen formakuntza akademikoa edo lana aipatzen dituela esan du Peru Camara idazleak. Hortaz, Camarak Arte Ederrak, ikus-entzunezkoen espezialitatea, ikasi zuen eta telebistan denboraldi batez lan egin ondoren, orain ingeles irakaslea da Altsasu BHIIn. Hezkuntza proiektu batean lanean ari zela, gazteekin lan egitea gustatzen zitzaiola konturatu zen eta bere irakasle lehenengo

lana Irurtzungo Atakondoan izan zen. Ondoren, Altsasura iritsi zen, "eta maitemindu nintzen: lekua, lankideak, ikasleak... Nirekin bat zetorren tokia zen. Oso zoriontsua izan naiz eta oso eskertua nago". Tartean, Galerna

"ILUNABARREAN DONOSTIAK ZENTZU MISTERIOTSU ETA ILUNAGOA HARTZEN DU"

Donostian kokatzen den eleberri beltza idatzi eta argitaratu du, eta gaur, martxoak 17, ostirala, 18:30ean, Ziordiko liburutegian aurkeztuko du, "ilusio handia egiten dit irakurleekin elkartzeak".

Nola hasi zinen idazten?

Getidanik modu amateurrean gauzatxoak egin izan ditut: bi-deoklipak, dokumentalak eta abar. Konturatu nintzen istorio handiagoak pantailara eramatea ezinezkoa zela, eta arkatzak eta paperak hori egiten uzten dizu-

te; zure imaginario pertsonala, barruko mundua, fantasiak eta abar jaso daitezke. Narrazio laburrak idazten hasi nintzen, eta esperientzia nahikoa lortu nuen nobela bat idazteko urratsa eman nuen.

Nolakoa izan zen prozesua?

Oso prozesu dibertigarria izan zen. Nobela beltza modan jarri zen, gehien bat Eskandinaviakoa: Stieg Larsson, Camilla Lackberg, Asa Larsson, Jo Nesbo... Imaginario, narrazio estilo eta genero horretan sartuta, trama Donostian kokatzea erabaki nuen. Arrakastetan eta akatsetan oinarritutako esperimentazio prozesu bat izan zen, baina oso dibertigarria. Behin idatzita nuenean, literatura agente bati bidali nion.

Eta erantzuna baiezkua izan zen.

Bai. Hiru kapitulu bidali nizkion eta interesatzen eta gustatzen zitzaiola esan zidan, eta dena bidaltzeko eskatu. Gogoan dut egun horretan institutuko ingeles mintegian nengoela Izaro Arakama lankidearekin. Oso hunkituta nengoen eta galdetu zidan ea zer gertatzen zitzaidan; agenteak oso mezu baikorra bidali zidala esan nion. Agentearekin aldaketa asko egin behar zirela adostu genuen, eta dena berridazten urtebete inguru egon ginen. Prest egon zenean, editorialera bidali genuen eta maketatu, azala aukeratu, azken ukituak eta nola salduko genuen erabaki behar izan genuen. Guretako gauza garrantzitsuenetariko bat Donostia zen, hiriaren markoa.

Zergatik Donostia?

Nire bikotekidea Hernanikoa da, eta bertan bizi ginen. Paseo arratsalde batean izan zen. Askok aldatzen den hiri bat da, ilunabarrean irakiten dagoen turismoa desagertzen da, eta denak beste zentzu bat hartzen du, ilunagoa, misteriotsuagoa. Gainera, erraz ibili daitekeen hiri bat da eta trama bat gau batean gertatzeko aukera ematen du eta baditu toki oso adierazgarriak: Haizearen orrazia, Miramar jauregia, Atoxa dorrea, Aquariuma... Misterio atmosfera handia duten tokiak dira. Beste Donostia bat iruditatzeko aukera eman dit. Esate-

rako, Haizearen Orrazian pentsatzen nuen: imajinatu hilketa baten auzia ebatzi behar duzula ekaitza baten erdian. Hori da dibertigarriena ere, irudimena erabiltzea.

Zer gertatzen da Galernan?

Haizearen orrazian gorpu bat agertu da eta Aitor Intxaurreaga forense hasiberria bere lehenengo eszenan dago. Oso urduri dago lana ongi egin nahi duelako. Denok gure lehenengo lan egunean sentitu izan dugun hori; pertsonaiekin identifikatzeko aukera ematen du. Ia denak joan direnean ekaitza datorrelako, gorpua berbegiratzeko hasiko da eta arrain hezur bat aurkituko du. Bertan gelditzen den Jaime Otamendi agenteari esango dio, eta Aquariumera joango dira itsas biologo bati galdetzeko. Bertan Eva San Pedro ezagutuko dute. Haritik tiratzen hasiko dira. **Zertan oinarritu zinen pertsonaiek sortzeko?**

Nobela beltzean moda bat egon zen non pertsonaia nagusiak oso ezohiko ezaugarriak zituzten: oso jakintsuak, memoria fotografikoa zuten... Niri ez zaizkit horrelakoak gustatzen, ez naizelako pertsonaiekin identifikatzen eta nobelatik ateratzen naiz. Aitor ahalik eta normalena izatea nahi nuen, Jaimek aitaren figura egiten du eta bere ibilbidea bukatzen ari da, Evak misterio bat du eta ez dakigu errugabea edo erruduna den...

Kritika soziala dago?

Nire helburua ez da leziorik ematea. Nobela beltza askotan auzo marginaletan kokatuta dago, baina nire ustez krimen larrienak boterean ematen dira. Nor da boterea Donostian? Eliza, politikariak, enpresariak... Horregatik hitz egiten dut beraiei buruz. Ez dut esan nahi politikari guztiak korruptoak direnik. Baina gaur egun kriminalek trajez jaten dira. Horrela atera zait, natural. Errealitatean gertatzen diren gauzak dira. *Galerna* publikatu eta bi astetara Kote Cabezudoren auzia atera zen. Argazkilari oso ospetsua zen eta modeloak erasotzen zituen. Errealitateak fikzioa gaingitzen du, beti.

Bigarren zatia idazten ari zara?

Eta eskusiban: Aralarko santutegian hasiko da. Ibarrarekin eta bertako jendearekin inspiratuta, santutegian hasten den auzi bati aurre egin beharko diote pertsonaiek.

"ERREALITATEAK FIKZIOA GAINDITZEN DU; GAUR EGUN GAIKILEEK TRAJEZ JANZTEN DIRA"



'Alarma' Lakuntzan

Su Ta Gar taldearen kontzertua izan zen larunbatean, martxoaren 11n, Lakuntzako kultur etxean. Eibarko laukoteak 2022an kaleratutako *Alarma* diskoaren aurkezpena egin zuen, baita betiko abestiak interpretatu zituen talde mitikoak ere. Su Ta Garrek Herri Urrats 2023ko abestia sortu du: *Urratsak zubi*.



BAZTERRETIK
IRATI PELLEJERO
MARIN

Mary Quant

Aurreko astean, gure egun ofiziala ospatu genuen, Emakumeen Eguna, hain zuzen ere. Hori dela eta, eta aurreko aleetan jorratutako gaiarekin jarraituz, oraingoan emakume transgresore bati buruz hitz egin nahi dut. Zehazki, minigona asmatu zuen emakumeaz: Mary Quant.

Londresen jaio zen, 1934ko otsailean, eta bere izenak 1960ko hamarkadan arrakasta lortu zuen mundu osoan. Gazteentzako moda informala egiten zuen, eta bere diseinuak munduko toki askotara zabaldu ziren. Bere estiloa xumea eta koloretsua zen; margaritaren sinboloa zen bere zigilu nagusia.

Baina Mary Quant ezaguna izan bada, 34 zentimetroengatik izan da. 60ko hamarkadan Ingalaterrako gizartea irauli zuen. Minigona sortu zuen, emakumeen askapen sinbolo bihurtuz eta haiendako inposatutako janzkera hausten zuen estilo berri bat sortuz.

Bi irakasleren alaba zen, eta gurasoek ez zioten moda ikasten utzi izan. Ilustrazioa ikasi zuen Goldsmith-eko eskolan. Alexander Plunket Greene senarrarekin elkartu

zenean eta graduatu ondoren hasi zen bere karrera.

1955ean denda bat ireki zuen: Bazaar. Hasieran, beste diseinatzaile batzuen lanak saltzen zituen, estilo alaia zutenen lanak, kolore deigarriekin eta emakumeen prototipo berriekin. Hala ere, ondoren, gizarteak eskatzen zuen modernizaziora eta eskaeretara egokitzen ziren jantziak egitea erabaki zuen. Orduan minigona sortu zuen. Mini Cooper klasikotik hartu zuen izena. Minigonak guztiz hautsi zuen aurretik modan egindakoarekin.

Janzkeran, joera gazte eta errebelde gisa nagusitu zen. Quantek ordura arteko modaren munduko arau guztiak hautsi nahi zituen, eta arropa zurruna eta kontserbatzailea deuseztatu. Diseinatzaile autodidakta izan zen, Estatu Batuetako denda handiekin aliantzak egin zituen, eta arropa linea modernoak atera zituen. Gutxi gorabehera, zazpi milioi emakumek zuten haren jantzitegiko diseinuren bat.

70eko hamarkadan, edertasun produktuak eta dekorazio objektuak ere egin zituen. Bi autobiografia argitaratu zituen. Britaniar Inperioaren Ordena eta British Fashion Councilen Ospearen Hallaren Saria jaso zituen.

Jazz, swing eta soul, ikasgelatik lortiarra

Zugardi Big Band taldeak musika eskolendako 'Jazz Go' proiektua jarri du martxan. Helburua talde instrumentalak sustatzea da, baita jazz generoa ikasleen artean zabaltzea ere. Bandak eta Altsasuko Musika Eskolak kontzertua emanen dute

ALTSASU

Soinuak ordenatzeko artea, entzulea hunkitzeko helburuarekin. Horrela dio musikaren definizio batek, Ignacio Fernández Galindo Dallas Zugardi Big Band taldeko tuba joleak eta zuzendari artistikoak. "Baina entzuleari zuzendutako emozio hori norberak egindako lan batetik sortzen da. Instrumentu bat menperatzeko lan indibiduala egin behar da, baina ez beti". Horregatik, gaineratu du, musika eskoletako eta kontserbatorietako talde instrumentalek musikari gazteen "bokazioa" sustatu nahi dute. "Non soinuak modu sinkronizatu ordenatzen diren, zuzendari baten gidaritzapean. Musika soziala eta hunkigarria bihurtzen da, eta jazz-arekin eta swing-arekin, gainera, dibertigarria". *Jazz Go* programaren filosofia da, eta horren barruan bihar, martxoaren 18an, larunbata, 19:00etan, Zugardi Big Band eta Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleek kontzertua emanen dute, lortia kultur gunean.

Zugardi Big Band Zizur Nagusian sortu zen, 2017ko urrian. Jazz, blues eta swing-aren klasiakoak interpretatzeko helburuarekin sortu zuten, 2014tik 2017ra arte martxan egon zen Zugardi Rag Band taldeko kideekin, baita kontserbatoriotik eta musika eskoletatik joandako ikasle eta irakasleekin ere. Guztira, 35 musikarik osatzen dute Zugardi Big Band. Fernández arte zuzendaria da eta Jokin Borromeo bandaren zuzendaria. Borromeo Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria ere bada.

2022. urtean, Zugardi Big Band taldeak *Jazz Go* programa martxan jarri zuen. Musikaren "alderdi kolektiboa" sustatu nahi dute. "Helburua Nafarroako musika eskoletako irakasle eta ikasleekin lantaldea sortzea da, haien mailaren arabera partiturak banatu eta bandarekin



Zugardi Big Band Zizur Nagusiko Musika Eskolako ikasleekin. UTZITAKOA

DUELA URTE BAT MARTXAN JARRI ZUTEN 'JAZZ GO'; BIHAR KONTZERTUA IZANEN DA

batera, eszenatokian 50 musikari baino gehiago daudela, interpretatu", azaldu du Fernándezek. 2022an, *Jazz Go* proiektua Nafarroako hiru herrietako musika eskoletan garatu dute, udal kultur zerbitzuarekin elkarlanean: Zizur Nagusiko Musika Eskolan, Noaingo Gayarren eta Zangozako Juan Francés de Iribarrenen.

Altsasun

Bihar, lortia kultur gunean, Zugardi Big Band taldeak eta Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak emanen duten kontzertua prestatzeko lan handia egon da atzetik. Programa 2022ko udaberrian jarri zen martxan, duela urte bat, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak eta udalak talde instrumentallendako trebakuntza osagarriak sustatzeko proposamena onartu zutenean. Hurrengo urratsa, Zugardi Big Band egindako molda-

ketekin abestien partiturak banatzea izan zen. Proiektuan egurrezko haize tresnetako, metalezko haize tresnetako, ahotsa, piano eta perkusio ikasleek parte hartzen dute. Borromeo jazz bandaren eta musika eskolaren zuzendariak lanen interpretazioa eta ikasketa prozesua irakasleekin koordinatu du, eta lanak ikasturtean zehar Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak egiten dituen emanaldieta-ko erreperorioetan sartu zituzten.

Borromeo azaldu duenez, talde instrumentalen lengoia duela zenbait urtez lantzen den arren, programak talde handi batean jotzeko aukera ematen die ikasleei, "musikari onekin eta musika tresna orekatuekin. Eszenatokia- ren muntaia ere profesionalagoa da. Interesgarria da gure ikasleak beste musikariekin irakurtzen, entzuten eta jotzen aritzea". Fernándezek gaineratu duenez, "musika eskolak programan parte hartzera animatu dira jazz-a normalean ikasgaietan lantzen ez den genero bat delako. Irakurtzeko, neurtzeko eta adierazpenerako zailtasun pixka bat du, eta Zugardi Big Bandarekin parte hartzeak errazagoa eta interesgarriagoa egiten du".



Haize Berriak bandako kideak. UTZITAKOA

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Kontzertu berezia prestatu du Haize Berriak Sakanako bandak Martxoaren 8aren Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren harira: *Emakumeak musikaren gailurrean*. Aurreko urtean, *Musak* kontzertuan emakume konpositoreen lana goraipatu nahi izan zuten. Aurten, Ane Jaka Garmendiak bandako kideak azaldu duen bezala, emakume konpositoreak eta interpretatzaileak omendu nahi dituzte. Era berean, historian zehar garrantzia izan duten emakumeen lanak merezi duten lekuan jarri nahi dituzte igandean, martxoaren 19an, 12:30ean, Iortia kultur gunean emanen duten kontzertuan.

Jakak azaldu duenez, espainiar estatuko musika bandetan dauden emakumeen kopurua %33koa da. "Bizitzan eta gizartearen edozein arlotan bezala, eta gehienbat artean eta musikan parte hartzen dugu, baina oraindik gizonezkoekin alderatuz askoz gutxiago". Generoagatik bakarrik emakumeek "oztopo eta zailtasun" gehiago dituztela esan du. "Hori kontuan izan behar dugu eta jendeak jakin behar du; oraindik asko gelditzen zaigu egiteko". Horregatik, *Emakumeak musikaren gailurrean* kontzertuan emakume konpositoreen lanak interpretatu ez ezik, "guk geuk protagonismoa izatea, modu aktiboan parte hartzea" sustatu nahi dute, eta bandako zen-

Emakumeak eta musika

Sakanako Haize Berriak bandak 'Emakumeak musikaren gailurrean' kontzertua emanen du igandean, Iortian. Emakume musikarien bi alderdi aldarrikatu nahi dituzte: konpositoreak eta interpretatzaileak. Emakumeen lana ere goraipatuko dute

bait emakume eta neska bakarlarari ariko dira.

"Emakume konpositoreak egon dira historian, baina askotan itzalean. Ezagunak diren lan askoren egileak emakumeak izan dira, baina ezkutuan egon dira". Haize Berriak bandak emakume konpositoreen lana aldarrikatzeko eta azalarazteko bi emakume gazteen obrak erosi ditu: Eva Ugalde gipuzkoararen *Iratxoa*, Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiarekin interpretatutako dutena, eta Grace Baugher estatubatuararen *Remembering the Remarkables*

**SAKANAKO HAIZE
BERRIAK BANDAK
KONTZERTUA EMANEN
DU IGANDEAN,
IORTIAN**

lana. "Bere obra interesgarria iruditu zitzaigun emakume oso gaztea delako eta AEBko mugimendu sufragisten omenezko lan bat delako; emakumeak lehenengo aldiz bozkatzeko lortu zuen mugimendu horri esker". Abestian, metafora moduan, mendi baten igoera irudikatzen da, "emakumeen lana, zailtasunak eta oztopoak irudikatzen ditu, baina mendia igotzea lortzen dute". Musikaren bidez historia kontatuko eta aldarrikatuko du bandak.

Solistak

Emakume konpositoreen lanaren barruan, Olatz Garde bandako kideak Morriconeren *Gabriel's Oboe* abestian egin dituen bandarako moldaketak goraipatu ditu Jakak. "Berak askotan egin dizkigu moldaketa lanak. Lan hori ez da askotan aipatzen

edo aintzat hartzen, baina lan handia da". Gardek eta Leyre Palaciosen bakarlarari moduan interpretatuko dute abestia.

Emakume musikariak eta interpretatzaileak aldarrikatzeko hiru abesti gehiagotan joko dute bakarlariek: *Clarinando* abestia Lujan Mata, Aiora Dorai eta Izaro Begiristain bakarkalari izanen dira; *Les Noces del Manyà* abestian Maddalen Oiarbide eta Luzia Andueza ariko dira eta *Celtic Flutes* kantan Ekhiñe Lumbreras eta Naroa Carrasko izanen dira solistak. "Beharren arabera aukeratu ditugu lanak.

**HIRU ARDATZ DITU:
EMAKUME
KONPOSITOREAK,
INTERPRETATZAILEAK
ETA HISTORIKOAK**

Zuzendariak aipatu zigun ea nor animatzen zen eta instrumentuen arabera lanak bilatu eta egokitu ditugu. Nik saxofoi tenorra jotzen dut eta saxofoi alto eta tenorrarekin duo bat egin nahi genuen, baina obra gutxi daude eta ez dugu bat lortu". Solista izatea "ardura handia" dela esan du Jakak: "Zutik jo behar duzu, jendearen aurrean, eta errespetu handia ematen du". Denak batera aritzen direnean, "osotasun baten parte" dira, baina bakarrik "ardura gehiago" denez "urduritasuna" senti daiteke. "Baina ausartu egin behar da, baita ohitu ere".

Bandak joko duen beste abesti bat Rozalen abeslariaren *La puerta violeta* izanen da. "Modernoagoa eta ezagunagoa da. Gaur egun Rozalen mugimendu feministaren ikonoa dela uste dugu, eta gustatzen zaigu giza eskubideak eta justizia aldarrikatzen baititu". Bandako juntako kideak eta zuzendaria abestiak aukeratzen egiten duten lana goraipatu du Jakak. "Beti daude jo eta fuego lanean, eta askotan, gomendioak eskatzen dizkigute".

Emakume konpositoreak, interpretatzaileak eta Haize Berriak bandaren *Emakumeak musikaren gailurrean* kontzertuaren hiru garren ardatza emakumeen lana historian zehar aldarrikatzeko da. Horrela, Amelia Earharti lehenengo emakume pilotuari eskainitako lana joko du bandak: *Earhart*. 1930ko hamarkadan bere hegazkinarekin Atlantikoa eta Pazifikoa zeharkatu zituen lehenengo emakumea izan zen. Emakumeei eskainitako bigarren lana, *Amparito Roca* izanen da. Jaume Teixidor Dalmauk sortu zuen pasodoblea bere piano ikaslea izandako Amparito Rocaren omenez.

Banda

Haize Berriak banda ausarta eta anitza da. David Sanchezen zuzendaritzapean "kontzertuez gain, askotan kalera ateratzen gara musika herrira hurbildu behar dugulako. Jende asko ez da kontzertu batera joango, baina kalean jotzen dugunean hurbiltzen da". Zuzendari bakoitzak "bere ukitua" eman diola esan du Jakak. Sakanako adin guztietako jendea biltzen da bandan, "talde bezala hori da politena Oso aberatsa da. Elkarrengandik ikasten dugu".



Forjas Bruneko Eduardo Brun eta Raul Serrano, beraiek egindako Irulegiko Eskuekin.

"Eskuak artisautzaren ikuspegitik balio handia du"

Izurdiagako Forjas Bruneko Eduardo eta Gerardo Brun anaiek eta Raul Serranok Irulegiko Eskuaren erreproduzioak egiten dituzte, artisau eran eta jatorrizkoaren tamaina berean. Bi mila urtez egin den artisau lana goraipatu nahi dute

Erkuden Ruiz Barroso IZURDIAGA

1 Nola sortu zen Irulegiko Eskuaren erreproduzioak egiteko ideia?

Aurkikuntzaren ondoren, jende guztia hasi zen eskuak egiten,

larruzkoak, zilarrezkoak eta abar. Baina inork ez zuen metalez, jatorrizko materialean, egiten. Pentsatu genuen duela bi mila urte baino gehiago egiten ziren moduan egitea, eta burdinazkoak

egiten hasi ginen. Jendeak uste du aurkitutakoa berdez margotuta dagoela, baina ez da horrela. Brontzezkoa da, eta brontzea herdoiltzen denean, kolore berdea hartzen du.

2 Noiz hasi zineten?

Iruñeko Geltokin abenduan antolatu genuen azoka baterako egin genituen. Azaroaren bukaeran hasi ginen egiten.

3 Zein da prozesua?

Dena eskuz egiten dugu. Garai hartan bezala egiten dugu, Aldatzen den gauza bakarra da mozteko modua. Horregatik, denak desberdinak ateratzen dira. Lamina edo txapa batean, Diario de Noticiasen argitaratutako tamaina errealeko irudi batekin plantilla egin genuen eta hori erabiliz, markatzen ditugu eskuak. Gero plasmarekin moztzen ditugu, eta lisatzen ditugu. Batzuek balio dute eta beste batzuek, berriz, ez. Gero, hizkiak jartzeko, punzoi batekin eskuz lantzen ditugu. Jarrarian, kolorea ematen diogu, ahalik eta antzekoen lortu arte. Ezinezkoa da berdinak izatea. Brontzezkoak egitea erabaki genuen, nahiz eta garestiagoak izan, horietan letrak askoz hobeto ikusten baitira. Batzuek garrantzi handia ematen diote hizkiak ondo irakurtzeko, eta beste batzuek, berriz, nahi izaten dute jatorrizkoaren ahalik eta antzekoen izatea. Aurkitutakoak koskak ditu denboraren igarotzeagatik; jatorrian ertzak zuzenak izango ziren, eta guk horrela egin ditugu.

4 Zenbat denbora behar duzue esku bat egiteko?

Esku bakoitza egiteko ordu eta laurden edo ordu eta hogeita minutu inguru behar izaten dugu. Hizkiak lantzea ordu erdi inguru kostatzen zaigu.

5 Proba asko egin zenituzten?

Egin genituen, bai. Hasieran, milimetro bateko txaparekin edo milimetro eta erdiko txaparekin egin genituen probak. Txaparen lodiera oso kontuan hartu behar izan dugu, kopia ahalik eta zehatzen izateko. Beraz, esku asko egin behar izan genituen.

6 Zenbat egin dituzue?

Hasi ginenetik ehun bat. Behin burdinazkoak ongi ateratzen zirenean, brontzezkoak egiten hasi ginen.

7 Harrera ona izan dute, ezta?

Oso ona. Iruñeko jende askok erosi ditu, baita Bizkaiko jende ugari ere. Opari bat egiteko izugarriak dira. Saldu dira eta ongi dago abenduan eta urtarri-

lean lana jaisten delako. Harre-ra ona izan dute prozesuagatik; artisau lana delako, eskuz egin-dakoak. Burdinazkoak 35 eurotan saltzen ditugu eta brontzezkoak, 60 eurotan, materiala garestiagoa baita. Kontuan izan behar da artisau lan bat dela, eta horri ere garrantzia eman behar zaio. Une honetan, Arruazuko Ostatuan, gure tailerrean edo webgunean eros daitezke. Nahi duzun pieza hautatzeko aukera dago, kolorea, koskak eta abar aldatu daitezkelako. Beraz, zuk aukuratutakoa zure eskua izango da.

8 Enkarguak hartzen dituzue?

Norbaitek beste tamaina batean nahi badu, ikusiko genuke. Istorio bitxi bat dugu eta da Iparraldeko arkeologo batek deitu zigula esanez Interneten esku asko ikusten zituela eta oso politak zirela, baina ez daudela lehen bezala eginak. Horregatik, gurea interesgarria iruditu zitzaion.

9 Zuen ustez, zer balio du eskuak?

Arkeologikoki eta euskararen aldetik balio handia du, baina artisautzaren ikuspuntutik ere balio izugarria dauka. Jendea agian ez da konturatzen, baina ari gara duela bi mila urte baino gehiago ez dakigu nork eta zergatik egin zuen pieza bat egiten. Guretako balio handia du pieza hori ia modu berdinean egiten ari garelako. Pentsa, hemendik bi mila urtetara guk egindako zerbait erreproduzitzen dutela modu berdinean. Artisauaren ogibidea ere hor zegoen; betidanik egon da artisautza. Harro sentitzeko moduko da. Aldatzen den gauza bakarra da mozteko erabiltzen den makina, beste guztia eskuz egiten dugu. Pieza bitxia da.

10 Beste erreproduzioak nola egiten dituzte?

Laserrarekin, ordenagailuan diseinua sartu eta makinak dena egiten du.

11 Udaberriarekin batera, feria garaia hasiko da

Feria eta azoketan erakustaldiak egiten ditugu, gehienbat. Aurten eskuak eramango ditugu, noski, eta uste dugu arrakasta izango dutela. Martxoaren 27tik apirilaren 2ra Artisautzaren Nazioarteko Astea da eta martxoaren 31tik apirilaren 2ra tailer-museoa irekita izanen dugu, doan.

**EMAIOZU
BULTZADA
ZURE
IRUDIARI**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu